



# KARDABERAZ-4

## 1975

### *Nun zer:*

<b>I.—KARDABERAZ BAZKUNA</b> .....	1
Bazkunaren Kondairarako .....	3-13
Tolosa'ko Batzar Nagusia .....	14-17
Gipuzkoa'ko lendakariak .....	17
Bizkaiko'ko barriak .....	18-20
Donosti'ko Idazle-eskola .....	20-22
Nafarroa'ko berriak .....	22
<b>II.—GIZONAK</b> .....	23
Garmendia ta Arzelus'tar Juan Jose .....	25-30
Egun zoragarri baten oroipena .....	31-35
<b>III.—EUSKERA</b> .....	37
Batasunera bidea eta kardaberazta- rrak .....	39-41
Euskeraren batasuna eta euskaldien indarra .....	41-42
Euskal izkelki-iztia ta nire maixu- lan nagusia .....	43-48
Euskeraz erabiltzeko era berezia dan "Itano" .....	49-53
Gramatika-formak idaz-lanetan .....	53-56
Garri, kor, koi atzizkiak .....	56-58
<b>IV.—EUSKAL-ERRIA</b> .....	59
Altxoazpi'n arte romanikoa .....	61-65
Gurutze Santuaren jaiera gure ar- tean .....	66-67
<b>V.—SASKI-NASKI</b> .....	69
Luis Mitxelena jaunari .....	71-75
Garbizaletasuna .....	75-77
Euskera Araba'n .....	78-79
San Inazio Iruña'tik Aspeitia'ra .....	80-82
Etorkizunari begira .....	83-84

## KARDABERAZ BILDUMA

- 1.º **KARDABERAZ AITARI OMENALDIA**  
(lan bilduma da). 15 x 21: 200 pg., 200 pta. (Lekuona, Akesolo, Onandia eta abar).
- 2.º **NEURRIZTIA**  
(Luis Egia). 15 x 21: 324 pg. 400 pta. (Teknika gaia).
- 3.º **SUGE GORRI**  
(François Mauriac — Uxola). 15 x 21: 167 pg.
- 4.º **ESPALAK**  
(Uxola). 15 x 21: 181 pg.
- 5.º **AITONAREN IPUIAK**  
(Ramon Murua).
- 6.º **ERREKA-ZULOAN eta...**  
(Anastasio Albisu Ayerdi).
- 7.º **1) KOMEDIAK-SHAKESPEARE**  
(Larrakoetxea, Bedita).
- 8.º **LANDARE-JAKINTZA**  
(Larrañaga, Gillermo).
- 9.º **GARTZI-XIMENO eta...**  
(A. Albisu Ayerdi).
- 10.º **EUSKALERRIA ETA ERIOTZA**  
(Anastasio Arrinda Albisu).
- 11.º **2 - KOMEDIAK**
- 12.º **3 - DRAMAK**
- 13.º **4 - DRAMAK**
- 14.º **5 - TRAJEDIAK**
- 15.º **6 - TRAJEDIAK**

SHAKESPEARE

## KARDABERAZ LIBURUXKAK

- 1.º **KARDABERAZ**
- 2.º **UME TXIKIENTZAKO SOINKETA**
- 3.º **EUSKAL-ERRIKO JAINKO TXIKIAK**  
(A. Arrinda).
- 4.º **KARDABERAZ - 2.**
- 5.º **KARDABERAZ - 3.**
- 6.º **AMEZKETA KO PERNANDO**  
(A. Albisu).
- 7.º **KARDABERAZ - 4**
- 8.º **PAKEAREN ERREGINA - MEZA**  
(J. Pildain).
- 9.º **20 IPUI ETA ANTZERKITXO BAT**  
(A. Albisu Ayerdi).

*Donatibo Diposizioa 41127*  
*Real de Guipuzcoa*

1150

I

## Kardaberaz Bazkuna



*R. L. 8141*

## BAZKUNAREN KONDAIRARAKO

### Jarraipena

1.974-garrengo Garagarrilla'ren 20'ean izan genduan Tolosa'n gure BATZAR NAGUSI ZABALA kardaberaztarrok.

45 bazkide bildu giñan.

Aita Txanton Goiria'k eta Berrondo'tar Pedro'k gaztigatu zигuten ezin-etorria. Gaixorik arkitzen bait-ziran biak.

Lekuona'tar On Manuel'ek eman zigun ongi-etorria. Eñzan, ordea, Loiola'ko *Billera nagusiko* agiririk irakurri, Berrondo'tar Pedro'k jaso baitzuan agiri ura, eta lentxuago esan degunez, gaixorik gelditu zitzaigun etxean.

Eta Albisu'tar Anastasio'k eman zizkigun azken-urteko gorabera geientxuenak: ez danak. Eta oar onekin asi zuan bere lana: "emen aipatuko ditugun gauzak *Bazkun osoarenak* diranez gero, ez ditugu bear-bearrezko izenak besterik emango. Onela laburtu ere, asko laburtuko degu lantxo au. Ta zeaztasun geiago nai dituanak, ikusi dezala *Kardaberaz bazkunaren artxiboko II-Idazki zorroa*.

Garmendia'tar Juan Jose'k argibide batzuek eman zizkigun gero:

a) Nor izango zan Tolosa'ko Bazkunaren Idazkaritza eramango zuan bazkidea... Zer ordaindu bearko zitzaion.

b) Gure *Idazkaritza, batzar-tokia* ta *liburu-biltokia* Iparragirre zine aretoan izango ziranez gero, bidezkoa zala, Kardaberaz Bazkunak zerbait ordaintzea Iparragirre zinekoi ere.

k) Argitaratzeko zai-zeuden liburuen zerrenda eman zigun gero, ta eskabide bat egin azken-azkenean: leen ere izatez, ala zala-ta, Albisu'tar Anastasio'k izan bear zuala *Bazkun osoaren* idazkari nagusia.

Garmendia'tar Juan Jose'k itz-guzti auek bukatu zituanean, galdera au egin zien Lekuona'tar On Manuel'ek, an bildurik zeuden bazkideeri: "ontzat ematen al'dituzute Garmendia jaunak esan dituan guztiak...?"

Eta "baiezko" bat izan zan bazkideen erantzuna.

Arrinda'tar Anastasio mintzatu zan gero, an-artean argitaratuta-ko liburueri-buruz.

—Zergatik argitaratu ziran liburu aiek...?

Eta ona-omen berak, bere galderari eman zion erantzuna:

—Garai edo aldi bateko euskal-idazleekin zor aundi bat gendualako.

Gero ordea, ta gauzak garbiago gelditu zitezen oraindik, liburu oietako batzuk argitaratzeko artutako diru-laguntzak, aipatu zituan. Eta laguntza oieri esker, naiz bazkideak gutxi izan, egin al'izan ditugula liburu-argitaratze oiek.

Tamalgarría izan zitzaigun Berrondo'tar Pedro'ren gaixotasuna. Ederrak eta sakonak izan bait-ziran, urte-buruan *Idazle-Eskolan* irakurri ta aztertu ziran lanak. Baiñan Berrondo jauna izan *Idazle-Eskolako* idazkaria, ta...

Itzez eman zizkigun Tolosa'tar Felipe'k Araba'ko kardaberaz-tarren berriak; idatziz Olazar'tar Martin'ek Bizkaikoenak, eta idatziz Napparrokoenak ere Ayerbe'tar Inozenzio'k.

Azkenengo bi lan auek *Kardaberaz-4* liburuxkan agertuko diranez gero, ez daukagu zergatik emen ezer esan.

Eta au izan zan azken-gaia: Eratu al'leike bazkide-artean sariketa bat...? Zertarako...? Nola...?

Uste zan bezela, bereala sortu zan eztabaida, ta galdera au egin zuan orduan On Manuel'ek:

—Ikusi dezagun lenengotik, zertarako eratu nai dan sariketa au...?

—Besteak beste, gure idazkieri gaurkotasun pixka-bat ematearren ere bai, erantzun zitzaion.

—Ba'da arrazoi bat, erantzun zuan orduan On Manuel'ek.

Exaniz'tar Nemesio'k, Zaitegi'tar Jokin'ek eta beste batzuek artu zuten orduan itza, ta iritzi ez-berdiñak azaldu ziran oso: argitaratuak ala argitaratugabeak izan bear zuten lan oiek: artikulo-onenari eman bearko zitzaiola sari ori: bost urte-burun askoen eta ondoen idazten zuan idazleari ta abar.

Arrinda'tar Anastasio'k orduan: etzala ori sariketa-asmatzalleen asmoa, liburu batzuek osatzeko gaiak aukeratzea baizik, bazkide geintsuen izenak liburu oietan azaldu zitezen, alegia.

Ordua ere aurera zijoan, eta etzan gauza garbirik erabaki. Beste batzar batean erabakitzekotan gelditu giñan azkenean.

*Distribuidora San Miguel*'ekin zertan giñan, azaldu zigun azkenik Garmendia'tar Juan José'k:

a) San Miguel'ek izango zuala gure liburuak saltzeko esku-bide bakarra.

b) Berak jasoko zituala argitaraldi-bakoitzeko liburu erdiak. Eta saldu egin bearko zituala auek gutxienez, bazkideetatik kanpora.

k) Berak ipiñiko ziola liburu bakoitzari sal-neurria. Ta sal-neurri orren erdia Kardaberaz Bazkunarentzat izango zala.

d) Iru illabetetik-bein eman bearko zituala kontuak.

Eta onela bukatu zan Tolosa'ko gure *Batzar nagusia*.

Ona-emen orain, *Batzar* ontara etorri ziranen izen-abizenak:

Agote'tar Pedro.

Sukia'tar Joxe Mari.

Bergaretxe'tar Juan Joxe.

Beraza'tar Manuel.

Agirre'tar Iñaki.

Juaristi'tar Migel Mari.

Rekalde'tar Manuel.

Errezola'tar Marzelino.

Yurre'tar Yulen.

Labayen'dar Antonio.

Ezeizabarrena'tar Juan Bautista.

Alberdi'tar Rosario.

Elosegi'tar Jesus.

Loidi'tar Fabian.

Arrinda'tar Anastasio.

Lekuona'tar On Manuel

Larrañaga'tar Esteban.

Akesolo'tar Lino.

Otaegi'tar Juan Inazio.

Tolosa'tar Felipe.

Larrakoetxea'tar Bedita.

Agire'tar Zezilio.

Garmendia'tar Juan Joxe.

Urrutia'tar Gotzon.

Galarraga'tar Luis Mari.

Ayerbe'tar Juan.

Estonba'tar Manuel.

Murua'tar Ramon.

Galarza'tar Angel.

Etxaniz'tar Nemesio.

Manterola'tar Gabriel.

Zaitegi'tar Jokin.

Garmendia'tar Martin.

Lete'tar Balbiñe.

Baztarrika'tar Joxe Mari.

Erbiti'tar Soledad.

Ayerbe'tar Inozenzio.

Albisu'tar Anastasio.

Urruzulo'tar Estanislao.

Intza'tar Damaso.

Otamendi'tar Joxe Mari.

Kerejeta'tar Pablo.

Olazar'tar Martin.

Peñagarikano'tar Juan.

Pueyo'tar Rita.

Eta ona-emen ere, Aita Txanton Goiria'k bidali zigun esku-titza:

Eibar. Garagarrillak 17

J. J. Garmendia.

Tolosa.

Adiskide: Agur biotzez. Beti bezela Batzarrera joateko nintzan baiña zoritxarrez oraindik ez det jaurti neugandik gripe zital au. Neure burua zaindubearra daukat ba. Esan arren batzarrekoei nire egoera ta ezin-joatea. Artuko diran erabakiak ontazt artzen ditut. Zure agiriaren zai geratzen naiz.

Agur eta gorantziak danai.

AITA TXANTON GOIRIA.

Uztaila'ren 4'ean Garmendia'tar Juan Joxe'ren garrantzi aundiko eskutitz bat.

Danok dakizutenez, 1974-garrengo Epailla'ren 26'ean Donosti'ko "Informacion y Turismo" ko delegazioan izan giñan, Kardaberaz Bazkuna argitaldari egin nai gendula-ta. *Libreria Técnicas de Difusión*'en izenean egin genduan eskabide au, ta ona-emen Madrid'etik jaso izan degun erantzuna:

Ministerio de Información y Turismo  
Madrid, 25 de Junio de 1974

Decreto

Ministro de Información y Turismo  
Excmo. Sr. Don Pío Cabanillas Gallas.

Visto el presente expediente y el informe del Jefe del Registro, así como la Ley de 14/1966, del 18 de marzo, de Prensa e Imprenta, y el Decreto 748/1966, de 31 de marzo,

Acuerdo que se inscriba *Librería Técnicas de Difusión*, domiciliada en la calle San Francisco, 1, Tolosa (San Sebastián), en el registro de *Empresas Editoriales*.

P. D. EL SUBSECRETARIO.

1975

Ilbeltzaren 15'ean Gazteiz'ko irarkolan-bildu giñan Arrinda'tar Anastasio, Garmendia'tar Juan Jose, Garmendia'tar Martin eta laurok.

Eta au izan zan gure billeraren zergatia: *Batzar nagusi bereizi* bat izan bear genduan biaramonean Tolosa'n, eta gauza batzuek garbitzea komeni zitzaigun Batzarrean azaltzeko gero:

- a) Zertan ziran gure liburuak.
- b) Zenbateraño garestitu ziran irarkolako lanak.
- k) Zenbaterañoakoak ziran, ordu-arteko, gure zorrak.

Eta onela zion *Batzar nagusi bereizi* ortarako deiak:

Tolosa'n 1975-go Urtarrilla'ren 7-an.

Bazkide ta lagun zaitugun orri, agur biotzez:

Urtea joan zaigu, ta, gure iritzian ez degu geiegizko artu-emanik izan aurtenengo urte ontan. Zergatik izan dau au...? Ona-emen *Batzar nagusian* argitu-bearreko gauza bat.

Ba'da besterik ere: bazkide-artean somatu degun naigabe-antzeko bat, alegia: Leen esandakoaren ondorengo bat, noski. Artu-eman-ezak berekin duan ondorengoa.

Orregatik, eta gure iritzian, bazkideak izan bear dute *Batzar nagusi* ontako *Izlari*. Azaldu dezala bakoitzak, argi ta garbi, bere iritzia. Egin ditzala nai-aña galdera. Ta zaldu ditzala, iñungo bildurrikan gabe, batzarrean artu-bearreko erabakiak. Danontzako ongarria izango bait-da jokabide au.

Au izan leike, bada, *Aurtengo batzarraren muiña*.

Eta ona-emen *Batzarra* egingo dan era:

- 1) On Manuel Lekuona'k, Lendakari jaunak, emango dio asiera.
- 2) Bazkunaren goraberak zertan diran Anastasio Albisu idazkariak.
- 3) Anastasio Arrinda'k, Gipuzkoa'ko lendakariak bertako berriak.
- 4) Martin Olazar'ek, Bizkai'ko lendakariak, Bizkai'ko berriak.
- 5) Tolosa'tar Felipe'k, Araba'ko lendakariak, Araba'ko berriak.
- 6) Ayerbe Inozentio'k Naparroa'ko lendakariak, Naparroa'ko berriak.
- 7) Berondo'tar Pedro jaunak *Idazle-Eskolaren* berri.
- 8) Lino Akesolo'k, lendakari-kide jaunak, gaurko euskeraren giroa.
- 9) Xanti Onaindia'k, bere euskal-literatura lanaren azalpena.
- 10) Jesus Gaztañaga'k Ikastolatza zertxobait.
- 1) Juan Jose Garmendia diruzaiak, diru-kontu ta Editorialaren berri.
- 12) Kardaberaz Bazkunaren ofizinen berri Garmendia'tar Martin'ek.
- 13) San Miguel liburu-banatzaillearekin ditugun artu-emanak.
- 14) Aita Mokoroa'ren lana, irarkolako gora-berak eta abar.

*Kardaberaz bazkunaren urrezko eztaiak dirala-ta, (1924-1974)* On Manuel Lekuonaren lanak noiz eta nola argitaratu, omenaldi bezela.

Zatoz, arren...! Ezaiguzu utsik egin...! Batzar ontan egon leike-ta gure Bazkunaren etorkizuna.

Batzar nagusi au, il onen 16'ean izango da Tolosa'ko Iparragi-  
rre zine aretoan eta goizeko amar t'erdietan.

Agur eta ordura-arte biotz-biotzez.

*Ilbeltak* 16. Osteguna.

Tolosa'n bildu giñan *Batzar nagusi berezian* kardaberaztarrok.  
52 izan giñan danok.

Eta amar auek gaztigatu ziguten beren ezin-etorria:

Barandiaran'go On Joxemiel'ek	Elizondo'tar Mauro aitak
Mokoroa'tar Justo aitak	Larrakotxea'tar Bedita aitak
Goiria'tar Txanton'ek	Latiegi'tar Bixente'k
Etxaniz'tar Nemasio'k	Agote'tar Pedro'k
Insausti'tar Xebastian'ek	Arrue'tar Izankun'ek

Batzar ontarako deiak zion bezela, ba'zan, bazkide-artean,  
orrelako naigabe antzeko bat, eta oar au egin zuan orregatik idaz-  
kariak: utzi ditzagun, arren, eztabaidak azkenerako, ez degu bes-  
tela, gaur erabilli bear ditugun gaiak erabiltzeko astirik izango-ta.

Eta idazkari bezela, Albisu'tar Anastasio'k iriki zuan batzarra.  
Bazkunaren urteko gora-berak eman zizkigun laburki, ta *Azken  
batzar nagusiko agiria* irakurri. II - Batikanoko itzulpena zertan  
zegoan, jakin-erazi zigun azkenean.

Gure lendakari dan On Manuel Lekuona'k itz-egin zigun gero.  
Orain bi urte eman zitzaiola, *Bazkunaren urre-etzaietarako*, here  
lan guztien bilduma egiteko agindua. Ta lan ortan ari zala, alegia,  
Lau edo bost liburu izango zirala danak. Eta gerturik zeukala le-  
nengoa. Ta antxe eman zigun, lenengoa izango dan ale ori.

Arrinda'tar Anastasio'k jardun zuan gero: Argitaratu ziran  
liburueri-buruz aurrena, ta Kardaberaz Bazkunak, *Bazkun bezela*,  
liburu-azokaetan eta euskal-kultura aldeko asteetan eta abar, azal-  
du-bear lukean nortasunaz gero. 17 liburu alkarren-ondoan ba'zirala  
la zerbait, alegia, ta ba'zirala, gure artean, euskal-kultura aldeko  
aste bat osatzeko gizonik prestu asko.

Tolosa'tar Felipe'k, *Gaurko egunean euskerak Araba'n duan  
giroa* azaldu zigun lenengotik, eta bertako kardaberaztarrek, illean-  
bein, egiten zituzten billerak gero. Billera auetan beti aztertzen  
zutela, alegia, bazkide batek egindako lanen-bat.

Kezkati ta pozik agertu zitzaigun, napartarren izenean, Ayer-  
be'tar Inozenzio. Bazkunaren berririk etzutela luzaroan jaso, eta  
pot-egin ote zuan bildur zirala. Baiñan Batzarrerako deia jaso zu-  
tenean, poz biurtu zitzaizela leengo kezka. Besterik-ezean, askotan

aipatzen zutela beintzat Kardaberaz Bazkuna, eta agindu zitzaien  
ikustaldi baten zai egon zirala urte osoan.

Bizkai'ko lendakari dan Olazar'tar Martin mintzatu zitzaigun  
gero, ta onetxek azaldu zituan garbien, bazkideen arteko artu-eman  
ezak, Bizkai-aldean sortu zituan Bazkunarentzako oztasunak: li-  
buruak-eta beren garaietan jasotzen etziralako ta abar... Baiñan  
etzan ori dana izan. Bizkaia'n zer, eta nola egiten zuten ere, garbi  
asko azaldu zigun Gamiz jaunak.

Berrondo'tar Pedro mintzatu zitzaigun gero, ta Gipuzkoa'ko  
*Idazle-Eskolaren berri* eman zigun zabalkiro: eskola-egun bakoit-  
zuean ematen diran izkuntza ta euskal-kultura saioak, eta jaso izan  
diran fruituak... Bere kezkek ere, azaldu zizkigun bide-batez or-  
dea: zergatik etzan jende geiago eskola oietara joaten...? Zergatik  
etzan aldizkarietarako geiago idazten, eta etziran liburuxka ba-  
tzuek argitaratzen...?

Euskeraren gaurko giroaz itz-egin zigun gero Akesolo'tar Li-  
no'k, eta galdera au utzi zigun azkenean zintzilik: ainbeste idazle  
ditugu kardaberaztarrok gure artean, eta ez ote litzake egoki, gure  
artean ba'da ere, batasun pixka-bat lortuko ba'genduke gure idaz-  
lanetan...?

Iritziz berdiñekoa agertu zitzaigun aita Xanti Onaindia ere. Ta  
onen iritzian, geiagotan alkartu bear genduke, ta batzorde-antzeko  
bat sortu, erriarentzat egoki liraken gaiak aukeratzeko.

Ikastolak aipatu zituan gero Gaztañaga'tar Jesus'ek. 65 zirala  
Gipuzkoa'ko ikastolak. Gurasoak izan zirala ikastola oien sortzaille.  
Presa geiegiakin sortuak izan zirala bear-bada, ta etzala, orregatik,  
andereñoak aukeratzean eta lan ontarako gertatzean geiegiko ardu-  
rarik izan, asieran beintzat. Gerora asi zirala burrukak, ikastolak  
indar pixkat artu zutenean alegia: nolako eziketa eman-bear zi-  
tzaien ikastolaetako umeeri, kristau-ikasbidea erakutsi bear zitzaien  
ala ez, eta abar... Gauza guzti auek etenik-gabeko artu-emana es-  
katzen zutela umeen gurasoekin, eta baita ume auentzako irakurgai  
egoki batzuek ere...

Tamalgarría benetan, baiñan astirik eman etziotelako-edo,  
etzuan bere lana idatzirik ekarri.

Eta etorri zan, azkenean, bi Garmendia'k itz-egiteko ordua:  
diru-zai bezela Juan Jose'k, ta Tolosa'ko lantegiaren arduradun  
bezela Martin'ek.

Saratxaga'tar Txomin'eri itz-erazi zion lenengotik Juan Jose'k:  
zertan ziran Distribuidora San Miguel eta Kardaberaz Bazkunaren-  
arteko artu-emanak, zenbat liburu saltzen ari zan, noiz garbituko  
zituzten bazkun-bien arteko diru-kontuak eta abar.

Arrinda'tar Anastasio'k eskabide au egin zion orduan Saratxa-  
ga'tar Txomin'eri: liburu-azoka bat eratzen zuanen, kardaberaz-

tarrok argitaratutako liburu *Guztiak* ipiñi zitzala bata-bestearen ondoan, eta ez ale bat edo beste bakarrik.

Irarkolako berriak eman zituan gero Juan José'k: irarkolako lanak, diru-aldetik, izan zituzten igoerak, eta orrek sortu zizkion buru-austeak eta abar. Garbi azaldu zituan ere, ordu-arteke diru gora-bera guztiak. Eta argitaratzeko zai-zeuden liburuen zerrenda luze bat eman zigun azkenik.

Garmendia'tar Martin'ek, bere aldetik, batzarrean azaldu ziran kezka guztien erantzuna eman zigun zabal-zabal: liburuak zabalatzeko ta urteko ordainketak jasotzeko egin-bear izan zituan ibialldiak: obe-bearrez korreora jo bear izan zuala azkenean: orrek leporatu zion lana, ta liburu-banaketan sortu zion atzerapena: erki bakoitzetik zenbat ezezko jaso zituan, eta 174 bazkide giñala orduan.

Naigabe asko uxatu zituzten bi Garmendia'k beren azalpen auekin.

Izan ziran zintzilik gelditu ziran galdera bi: Berrondo jauna-rena bata, ta Otamendi'tar Joxe Mari'rena bestea... Ala ere, oso-ongarria izan zala *Batzarra* esan dezakegu.

Eta bukatzeko, ona-emen *Batzarrerà* etorri ziran bazkideen izen-abizenak:

On Manuel Lekuona  
Akesolo'tar Lino  
Labayen'dar Antonio  
Intza'ko Damaso  
Loidi'tar Jose Antonio  
Elosegi'tar Jesus  
Berrondo'tar Pedro  
Manterola'tar Gabriel  
Aita Xanti Onaindia  
Elorza'tar Jose  
Egia'tar Luis  
Irigoyen'dar Txomin  
Murua'tar Ramon  
Garate'tar Remigio  
Urruzola'tar Estanislao  
Aita Luziano  
Arteaga'tar Leon  
Gorostidi'tar Pedro  
Arantzamendi'tar Juan  
Rekalde'tar Manuel  
Ayerbe'tar Juan

Bergaretxe'tar Juan Jose  
Sukia'tar Joxe Mari  
Abaunza'tar Jose Luis  
Aburto'tar Luis  
Iriondo, Deba'ko andereñoa  
Arrinda'tar Anastasio  
Olazar'tar Martin  
Tolosa'tar Felipe  
Ayerbe'tar Inozenzio  
Garmendia'tar Juan Jose  
Garmendia'tar Martin  
Albisu'tar Anastasio  
Gaztañaga'tar Jesus  
Oteagi'tar Juan Ignacio  
Toledo'tar Nekane  
Agirre'tar Joxe  
Beraza'tar Manuel  
Batzarrika'tar Joxe Mari  
Irulegi'tar Juan Martin  
Otamendi'tar Joxe Mari  
Estamba'tar Manuel

Iñarra'tar Jose Luis  
Errezola'tar Marzelino  
Ezeizabarrena'tar Juan Bautista  
Galarza'tar Angel  
Loidi'tar Faben

Artola'tar Rafael  
Galarraga'tar Luis Mari  
Jauregi'tar Jesus  
Pueyo'tar Rita  
Saratxaga'tar Txomin

Gazteiz'ko Irarkolako Zuzendariari idazten zion, Ibeltza'ren 17'an, Garmendia'tar Juan Jose'k. Irarkolako diru-igoerak, *Tolosa'ko batzar nagusian* sortu zuten giro txarra, adierazten zion bertan... Leen, lana merkeago egiten zuelako-edo, errez barkatzen zitu- tuala jendeak liburuetan agertzen ziran utsak eta dotoretasun-ezak, baiñan bildur zala, orrenbeste ordaintzekotan, ez ote zuan jendeak beste irarkola batera joko, ta abar...

Eskutitz au egin nien, Ibeltza'ren 29'an, *II Batikanoko agiriak* euskeratzen ari ziraneri:

*Agur*: Gure gotzai Jaxinto jauna, zai-zai omen daukagu *II Batikanoko Agiri guztiak* euskeraz argitaratzeko. Diru-aldetik ez dago, bada, eragozpenik. Itzulpen aldetik ordea...

Ba'dakit, egiñak dituzutela askok zuen itzulpenak, eta ortxe zaudetela, noiz bilduko ote geran, deiaren zai.

Emen dezute, ba, dei ori: Jorrailla'ren 3'an, osteguna, bilduko gera Tolosa'n, On Manuel buru, goizeko 11'etan. Eta ekarri, arren, zuen lan oiek, *II Batikanoko Agiriak* euskeraz ikusi ditzagun leenbaitleen.

Laister arte bada. Zuen betiko lagun.

Ibeltza'ren 30'ean Azkoiti'n bildu giñan Arrinda'tar Anastasio, Garmendia'tar Juan Jose, Garmendia'tar Martin eta Albisu'tar Anastasio. Eta au izan zan gure billeraren zergatia: Urrungo gure *Batzar nagusia* eratu. Eta ona-emen bertan artutako erabakiak:

a) Azaldu dezaigula *Batzar nagusi ortan* Akesolo'tar Lino'k, zertan legoken kardaberaztarron euskeraren batasuna.

b) Azaldu dezaigula Onaindia'tar Xanti'k, zeintzuk diran erriak eskatzen dizkigun idaz-lanak.

k) Esan dezaigula Gaztañaga'tar Jesus'ek ikastolatarako bear dituzten textuak eta irakurgaiak.

d) Azaldu dezaigula Olazar'tar Martin'ek, euskera dala-ta, egiten ari dan lana.

e) Berak etortzerik ez ba'lu ere, bialdu dezaigula Mokoroa'tar Justo aitak bere lan aundiaren azalpen bat.

f) Eman dezaigula Berrondo'tar Pedro'k *Idazle-Eskolak* zer izan bear luteken, iritzi bat.

Billera onek, ordea, *Batzorde nagusikoen* beste billera bat eskatzen zuan. Eta Otsailla'ren 15'ean bildu giñan *Batzorde nagusikoak* Tolosa'an. Eta auek izan giñan :

Lekuona'tar On Manuel, lendakaria.  
Garmendia'tar Juan Jose, diru-zaia.  
Tolosa'tar Felipe, Araba'ko lendakaria.  
Olazar'tar Martin, Bizkai'ko lendakaria.  
Arrinda'tar Anastasio, Gipuzkoa'ko lendakaria.  
Ayerbe'tar Inozenzio, Naparroa'ko lendakaria.  
Albisu'tar Anastasio, idazkaria.

1/ Maiatzaren lenengo eguna aukeratu genduan, bazkide guztien **BATZAR NAGUSIRAKO** egun. Tolosa'n izango da Batzar nagusi au, ta goizeko amar t'erdietan.

2/ Ontzat eman zituzten danak, Batzar Nagusi ontarako aukeratutako gaiak.

3/ Gai auetan bi, Olazar'tar Martin'ena ta Mokoroa'tar Justo aitarena, adierazgarriak dira. Biak ari bait-dira, euskerari-buruz, lan sakonak egiten. Sail ontan sartu dezakegu ere, Gaztañaga'tar Jesus'i, ikastolaeri-buruz eskatu zaion lana.

Beste irurak, ordea, Bazkuna indartzeko edo-ta Bazkunaren nortasuna geiagotzeko: **IDAZKIAK AZTERTU TA AUKERATZEKO BATZORDE BAT** aita Xanti Onaindia'rena, **IDAZLE-ESKOLAK IDARBERRITZEKO** Berrondo'tar Pedro'rena ta **KARDABERAZTARRON ARTEKO EUSKERAREN BATASUNA** Akesolo'tar Lino aitarena.

4/ Gaurko-egunean bizi-bizirik dagoan arazo bat dalako-edo, Akesolo'tar Lino'rena jo zan garrantzitsuena bezela.

5/ Garmendia'tar Juan Jose'k itz-egin zuan gero, ta euskeraldeko guztiekin asi zituan artu-emanak aipatu zituan lenen-gotik, bai Euskaltzaidia'rekin, bai Zeruko Argia'rekin, bai Goiz-Argi'rekin, bai Jaunaren Deia'rekin eta abar. Auei-daneri utsean-edo bialduko zaizkie guk argitaratuko ditugun liburuak, baiñan gure idazki oien zabalkundea egin bearko dute, gero, beren aldizkarietan.

Euskaltzaindia'ren eskutitz bat ere irakurri zigun, gure eskeintza ori eskertuaz. Eta bertan esaten zigutenez, gure lan guztiak aipatuak izango dira **EUSKERA'N**, Euskaltzaidi'ko aldizkarian, alegia.

Beste barri on bat ere eman zigun Garmendia'tar Juan Jose'k: gure liburu guztiak nai zituztela Gipuzkoako Aldundegiko Liburutegian, eta arpide egin zerala ontarako.

Beste-ainbeste lortu bear zala Araba'n, Bizkaia'n eta Naparro'n ere, ta Tolosa'tar Felipe'ri, Olazar'tar Martin'eri ta Ayerbe'tar Inozenzio'ri eman zitzaien **AGUR, PRINCIPE DE VIANA** ta eskualde bakoitzeko Aldundegiekin artu-emanetan ontarako asteko agindua.

6/ Ayerbe'tar Inozenzio'ri beste agindu bat ere eman zitzaion: ba'omen ditu Lesaka'ko erretore jaunak, dakigunez, iztegiatan agertzen ez diran eta Lesaka-aldean bizi-bizirik dauden zenbait eskal-itx bilduak. Itz oiek eskuratu ditzala, alegia, **KARDABERAZ-4'** garren alean argitaratzeko.

7/ Garmendia'tar Juan Jose'k galdera au egin zuan azkenik: liburuak ainbeste garestitu diran ezkeru, ez ote gendukean urteroko ordainketa ori jaso bear?

Galdera onetxek sortu zuan eztabaidarik aundiena. Korapillo ori askatzeko iritzi asko eman ba'ziran ere, etzan gauza garbirik erabaki ordea.

Eta esan dezagun bukatzeko, Akesolo'tar Lino aitak etzuala Batzar ontara etortzerik izan.

Eta Jorrailla'ren 3'an Tolosa'n giñan **II BATIKANOKO AGRIEN EUSKERAZLEAK**. Zazpi auek besterik ez giñan bildu :

Latiegi'tar Bixente	Yurre'ko aita Yulen
Beraza'tar Manuel	Murua'tar Ramon
Egia'tar Luis	Errezola'tar Marzelino
Albisu'tar Anastasio	

Gutxitxo, zoritxarrez, eta ez genduan ezertxo-egiterik izan. Beste iru auek adierazi ziguten ezin-etorria :

Tolosa'tar Felipe'k  
Bergaretxe'tar Juan Jose'k  
Garmendia'tar Martine'ek

**BATZAR NAGUSIRAKO DEIAN**, arren eta arren eskatu zitzaien, Tolosa'ra eramateko egiñak zituzten itzulpenak, baiñan Tolosa'ko **BATZAR NAGUSI ORI** etzan egiterik izan Maiatzeko lenengo egunean, pentsaturik zegoan bezela, Bizkaia ta Gipuzkoa **LEGE BAREIZIPE BATEAN** sartu zituztelako aurreko egun batean.

Eta penagarria izan zan benetan, uraxe izango bait-zan kardaberaztarron **BATZAR NAGUSIETAN**, batzarrik ederrena ta onuragarriena, bai gaiez eta bai bilduko ziran bazkideez...

*Albisu'tar Anastasio*  
idazkariak



## TOLOSA'KO BATZAR NAGUSIA

Kardaberaztarrok

Gaurko Egitekoen Programak, lenengo Egiteko bezela, Len-dakariaren agurra ipintzen du.

Asi gaitezen, beraz, agurretik.

ONGI ETORRIAK ZERATELA GUZTIOK Batzar Nagusi on-tara.

\* \* \*

Bigarren gauza bezela, zerbait kexa-itxurako irakurtzen degu Programa ortan: zerbait lantu, zerbait naigabe: Batzarretan ez dala agertzen, gutxi baizik, Bazkideen Bazkunarekiko ar-emanik; eta orregatik nunbait gure Batzarrak otz edo ez bear bezain-bero gertatzen dirala.

Nik neronek ere ba ditut nere artu-emanak gai ontan, eta asi nadin ortatik.

Urte bi ba dira, nere lanak Bazkunaren eskuz argitaltzeko eskatu zenizkidatela. Eta baietz esan nizuten, emango nizkitzutela. Bañan, argitaldu baño leen apur bat apaindu bear nituala; batez ere Bibliografiak pixka bat ornitu. Eta, ortarako beta-zai, urte bi joan zaizkit. Ondo egia da, erderazko errepiñak diona: "Obetonaia, ondo-dagonaren arerio izan oi dala": "Lo mejor es enemigo de lo bueno".

Beragatik, diranak dirala eta dauden bezela, zuen eskuratzea erabaki det gaur. Bibliografiarik gabe. Bañan uste bait det, larru bixi-bixian ere, gaiaren indarrez naiko jakingarri izango dirala. Eta pakea.

\* \* \*

Zer izango da guztia? Lau edo bost liburutxo.

Zer gai? Azken-urte otan or ta emen eman ditudan itzaldiak batez ere. Itzaldi bezela, ez elkarrekin oso lotuak; gai askotakoak baizik. Gaur entregatzen dedan sallak emango dizute gauzaren neu-  
rri txiki bat.

Lenengo tomotxo ontan lau itzaldi sartzen ditut:

1) "Gure Ikastola, Eskubide Jatorraren aurrean"; orain urte batzuek, Andoain'go Lizeo Larramendi'n eman nuan itzaldi bat.

2) "Aita Larramendi'ren jaiot-etxea": bera jaiot zaneke etxea, alegia, ez oraingoa; ordukoa gerratean erre bait zan; eta oraingoa ez bezelako baserri-jauregia zan; itzaldi au, A. Larramendi'ren beraren eriotzeko irureun urte-betetzean ematekoa zan, bañan ez bait zan baimenik lortu, ez nuan ematerik izan.

3) "Juan Bautista de Erro y Azpiroz, Erri-gizon eta Epigra-fista"; au ere leengo urtean, Erro'ren beraren berreun urte bete-tzean ematekoa, bañan orduan ere baimenik lortu ez-ta, joan dan Abenduan, oxta-oxta eman nuan.

4) "Euskalerriko artistak, XVII gizaldia arte"; Andoain'go gazteak eskatuta, joan dan Urrillean, San Juan Lasalle'ren Ikaste-txean emana.

Ikusten dezutenez, lau itzaldi, eta itzaldien gairik geienak. His-tori-gaiak dira, Euskal-Kulturaren barru-barruan sartuak.

Gañerako tomoak ere berdin izango dira, Euskal-Kulturazkoak; dirala,

- 1) Gipuzkoako zenbait erriren histori-monografiak; dala.
- 2) Aozko euskal literatura; dala.
- 3) Literatura-Kritika; dala.
- 4) Arte-Kritika; dirala.
- 5) Soziografi-Entsaio; dirala.
- 6) Kartistate; dirala.
- 7) Besterentzako Liburu-Prologo...

Eta, aizkenik, erregali ta propina bezela, nere Olerkiak -batez ere, nere denboran, urtean-urtean egin ditudan Gabon-Kantak...

\* \* \*

Eta ez noa ezer geiago esatera, besteak ere beren txanda izan dezaten beren esan-bearrak esateko.

Eta herriz ere, nere Agurra: ONDO EORRIAK ZERATELA.

Lekuona zaarrak

Tolosa : 16-I-75.

Aizkeneko batzarretik onerako berri bereizirik, nik esatekorik, ez dakit ote dagoen ere. Liburuak argitaratu dira, Idazle-eskola asita dago berriro, zenbait bazkideek idazten dute aldizkarietan, zabal-kundea motel darabilkigu...

Baiña, aukera daukatenez, asmo batzuek agertu nai ditut emen.

Lenegoa gipuzkoarrentzako: billera baten bearrean gaudela, alegia. Ez gera betirako izendatuak izan. Araudiari begiratu bat eman ondoren, karguetarako gizon berriak aukeratu...

\* \* \*

Bigarrena: onek talde guztientzako balio du eta auxe da:

Gure Bazkunak baditu argira emanak bai liburu eta bai liburuak. Danetara amazapi. Omenaldia, Neurritia, Ezpalak, Sugegorri, Aitonaren ipuiak, Erreka zuloan eta Shakespeare'ren Komediak, Euskalerrria eta Eriotza eta laister agertuko diran Landare-Jakintza eta Garzi-Ximeno. Orra amaika liburu aundi. Txikiagoak beste bost agertuta daude: Iru Kardaberaz, Soinketa eta Jainko Txikiak. Laister ikusiko degu Amezketa Pernando ere. Danetara eta alkar jota 17 dira.

Asko da.

Orañ arte, ordea, Bazkun bezela, ez gera iñungo liburu-azoketan azaldu.

Ezertarako ere.

Egia da San Miguel'ek agertu izan ditula bat edo beste, bere liburuekin naasian. Baiña, ori ez da naikoa. Azoka bakoitzean mai bereizi bat bear degu geuretzako bakarrik. Gogoratzen naiz Durango'n, lendabiziko azokan zala uste dut, "Lur" an zegoan editorial bezela. Liburuak, ordea, bat; edo geienetaz ere, bi. Baiña, an zeuden beuren buruak erakusten. Guk aurren amazapi izango ditugu esku-artean. Eta amazapi asko dira alkarrekin jarri ezkeroz. Erriaren Kardaberaz'entzako orixe propagandarik ederrena...

Erri geienetan baditu bazkideak, asko kostatuko al litzake, oiek medio dirala, geure burua azoka guztietan agertzea..? Urte berri onetarako beste zeregiñik bizkarren gaiñean artuko ez bagendu ere, naikoa interesgarri litzakela uste dut.

\* \* \*

Irugarren asmoa: Euskal-kultura aste eta amabosteko aldiak nun-nai sortzen dira. Antolatzaileak askotan ez dakite nora jo.

Zailla eta gaitza al litzake, emen gure artean, lanak eta gizonak antolatzea euskal-kultur-aldi oietarako..? Dozenerdi eta dozena bat gai eskeintzeko gizonak ez al gaude emen..? Eta asiera emateko, zergaitik Kardaberaz Bazkunak berak, orretariko kultura-aldi bat preparatu ez..?

Erantzuna zuen esku dago.

A. Arrinda

Gipuzkoa'ko K-B'ren lendakari

Bukatzeko beste gauzatxo bat ere agertu nai dizutet berriro.

Euskalerrria eta Eriotza neronek ordaindu dut. 300 ale Kardaberaz'eri saldu dizkiot kostabako prezioan eta neurrian. Oraingoz au dala deritzat biderik errezena liburugintzan aurrera joateko, alik eta bazkide geiagorik ez degun artean.

Gaiñera ba dut joan dan urtean egindako beste liburu bat ere: Euskalerrria eta Arrantza du izen-buru. Bestea baiño luzexeago eta politagoa.

Euskaldunen arrantza bale-arrantza izan da. Milla urtetik gora dijoa euskaldunek arrantza ori asma zutenetik ona. Ingalterra, Holanda, Dinamarka eta beste Europako erriak bosteun urte beranduago euskaldunak baiño, asi ziran bale-arrantzan. Eta ori euskaldunek erakutsita. Diruaren truke. Truke galestia: ondoren ikasleek maixua menperatu zuten eta erditik kendu. An amaitu zan euskaldunentzat beurok sortutako arrantza. Ingalterra, Dinamarka eta Frantziak heuren mende artu zituzten Kanada, Terranova eta Groenlandia, eta ondoren leku aietatik euskaldunak giputx eta bizkaitar guztiak uxatu zituzten... Orrela amaitu zan zortzireun urteko epopeia arrigarria...

Gaia, benetako olerkari baten zai dago.

Liburu au, aurrekoaren antzera, Kardaberaz'en eskuetan uzten dut. Bazkunak 300 ale, bazkide geiagorik ez dan artean naikoa dirala usten dut, ordaindu eta nik beste guztiak.

Ikus liburu eta onartzen badezute, irarkolara eramateko moduan gera. Bestela balitz, gure sailletik at argitaratu bearko nuke.

Esatekorik besterik ez dut.

A. Arrinda

## BIZKAI'KO BARRIAK

### IGAZKO KEZKAK

Beste urte bat igaro zaigu, eta aurten ere igaz izan genitun kezak berak ditugu. Bizkai'ko Kardaberaz'tarrak, gure erakunde oneri begira, ez daukagu poz aundirik. Eta benetan tamalgarria dala uste degu egoera larri au.

Bide zuzen bat artu bearrean aurkitzen dala uste degu Kardaberaz bazkun au. Eta aurten berrogei ta amar urte betetzen diran ezker, Bazkuna sortu zanetik alegia, zuzenbidea artzeko era egokia dala uste det gaurko batzar au.

Ain zuzen ere, Urte Santuak bakoitzari ta erakundeai biurtze au eskatzen digu.

Guztiok maite degu gure Erria, baiña geienok Erriari laguntzeko orduan motel eta alper gaudela uste det.

### BIZKAIA'N ZER?

Ez degu Bizkaia'n gauza aundirik egin.

Illero egiten degu batzarra, baiña ille askotan utsak egin ditugu.

Batzarrak egin ditugunean, bazkide oso gutxi agertu dira. Berrogei ta bat bazkide gera Bizkaia'n, azken-egun oneitan sartu diranak konturatu gabe. Eta batzarretara ez dira iñoiz ere agertzen amarretik gora, geienetan bost inguru. Deiak ere guztiai ez zaizkiete bialtzen.

Batzar oietan, idazle-ikastolak bere lana egiten du, eta egitarauak oneik izaten dira: Idaz'lan bat ekarri bakoitzak, eta oietako bat guztion artean aztertu; aldizkari batetik lan bat irakurri eta aztertu; gai bateri buruz azalpen bat egin.

Ez diñogu ezer ere ez degula egin. Ori ez litzake egia izango. Baiña oso gutxi egin degula autortu bearrean gaude.

Zergaitik motelkeri ori?

Geienok oso lanpetuta gaudelako eta asko oraindik euskerari buruz geiegi arduratu gabe aurkitzen diralako.

Gaurtik aurrera ere jarraitzeko gogo ba degu, baiña ondoren aundirik aterako degulakorik ez daukagu.

Itz-aldi batzuk ere eman ditugu Bizkai'ko Kardaberaz'tarrak, eta geiago emateko gogo ta naia ere ba degu, baiña olako erak ere beti ez ditugu izaten. Guk degun motelkeri-gaizo au zabalá da eta euskaldunak ez dute gure gaiak sakontzeko gogo geiegirik.

Bakoitzak bere txokotxoan, egiten degu lan, eta batzuk ez gutxi ere, baiña Bazkunak lan ori konturatzeko eskubiderik duanik, ez det uste.

### BAZKUNARI BURUZ ZER?

Bazkunari buruz ere ba'ditugu gure kezak eta ez arin-ariñak ere.

Bazkunaren izenean etorri zan batzar batera gure Garmendia'tar Martin, eta liburuak ere ekarri zituan. Batzar orretan izendegia osotu ta argitu genun. Baiña liburuak banatzeko erarik guk ez genula ta, korreoz eta ordaintze-ordez bialtzea erabagi zan. Guk dakigunez, Bizkai'ko bazkide asko dira liburuak artu gabe daudenak, eta ordaintzea ere batzuk egin dute, baiña beste askok ori ere ez.

Ezin esan ba erakundea ongi ari danik. Or illuntasun asko eta naspilla aundia agiri dira.

Zeintzuk liburu argitaratu erabakitzeko ere izendatu zan batzorde bat, baiña batzorde orretan, guk dakigunez, ez da erabagirik artu eta batzarrik ere ez degu uste egin danik.

Larrakoetxea'ren libururik, Shakespeare'ren antzerkiak ditugu gogoan, ez degu ikusi, Aita Justo Mokoroa'ren *Esakunak* deritzaion liburu ez dakigu noiz agertzeko dan ere; eta itxaroten dauden beste idazle batzuk ere ez dute itxaropen geiagorik.

Ba ditugu ba, kezkatu izateko zioak eta ez txikiak. Gure Bazkunak bizitasuna ta bizkortasuna bear ditu, baiña itxaropena ere galdu-zorian daukagu.

### ZERGAITIK

Zergaitik ez ote du zuzen eta azkar aurrera jotzen Kardaberaz'ek?

Guztiok gera errudun, geure indarrak orretarako ezarten ez ditugulako eta ardura bizia artzen ez degulako.

Baiña ba degu parkabide bat ere. Oso lanpetuta gaude geienok, eta, au txarrena, egunoroko lanez lanpetuta. Antxiñako denporetan izan zuten nasaitasuna ta erreztasuna ba'lukate gaurko Apaizak eta kristauak, lan ederra egingo genuke. Baiña lengorik ez dago.

## ZER EGIN?

Gizon azkatu edo liberatu bat artu bear degu, eta oneri bear dana ordaindu eta egunoroko lan sendoa eskatu. Egin bear dituen joan-etorriak ere ordaindu. Baiña lan ori egiteko, bazkunai aurre-rapidea emateko trebea dan bat aurkitu bearko da eta beronek, batzarrean artzen diran ebatziak betetzen eta bete-erazten saiatu bearko luke urte guztian, beronen kontura zabalkundea, irakola-rekin ar-emanak, batzarrak eratzea, liburu zabaltzea, urteko ematekoak eskatzea, t. a. Eta urteroko batzarrean berak egindako lana agertuko luke.

Baiña orren gain ez litzake izango lana dana, guztiok laguntzaille, baiña bere ardurapean ekiten degula. Eta berak eskatu dezala bear duan askotariko laguntza.

## BESTE BIDERIK?

Ba liteke ori baiño beste bide zuzenago ta merkeagoren bat izatea. Batzarreko guztiak dute ori agertzeko itza.

Baiña bide barri bat, bide eginkor eta eraginkor bat artu bear degula argi ikusten det nik, bizirik jarraitu nai ba' degu beintzat.

Beti izango dira, egitekoak egin arren, lanik ezin dutenak eta nai ez dutenak, baiña lan egiteko era argi bat agertzen danean, erre-zago jakingo da nor dan errudun edo nork ezin duan. Gaur ezer ez da argitzen gure artean.

Parkatu gogorregi mintzatu ba'naiz, baiña egoera larri baten aurkitzen diran bazkideen itzak dira.

*Gamiz*

## DONOSTIAKO IDAZLE-ESKOLA

Gai oni buruz, gogoratu ditzagun, bazkunaren asieratik izan ditugun asmoak, ara:

1) 1.971'ko Urtarrillaren 14'ean, asmo au artu genduan gure batzarrean: "Bazkideen lan-bideak, iru klasetakoak bearko dira noski: aldizkaritako artikuluak, gaur dan eguneko gairik bizienak aztertuaz liburuxkak, eta inbestigazioko lanak. Oraingo, berrogeiren bat artikulu bear genituzke aldizkarietarako, illeoro. A. Arrinda jaunak egindako gai-bildumatik ageri danez, auek lirake gairik

bizienak: marxismoa, kristau-dotriñaren irakaskintza... noiz ta non ta nola, sexo-olatua gaur, leengo kristau-bideak".

2) Andik amabost egunera, Donostian bertan, Urtarrillak 29, onako au: "Beste gai bat ere ukitu da: illean bein edo bitan, euskal-idazkuntzarako billerak non ta nola eratu. Non egiña ba litzake, UHAIN biltokian edo Repardoretako Etxean; euskal-idazle asko da galdezka... ea noiz asiko; garrantzi aundiko eginkizuna derizkiogu, eta au ere Loiola'ko Batzarrean ikusteko gelditu da".

3) Loiola'n, andik egun batzutara, Otsailak 18 (Erakunde-Batzarrean), ara: "Gai auen ondorean, beste bat sortu da aurrera eraman bearrekoa: illean beingo eskola-saioa; idazleen formaziorako alegia".

Asmo auetatik jaioa dugu gure Idazle-Eskola.

\* \* \*

Jaio zan bada, bizirik iraun du eta bizirik dirau. Reparadoretako Etxean bizi izan da geien-bat, San Martin kaleko biltokian bertan ere bai batzuetan, eta joan dan urteko (74'ko) asieratik onuntz... Apaizgaitegian. Olatsuko etxe batean jaio zan, eta aruntz bildu da herriz ere ibillian-ibillian. Idazle-Eskolak:

—Irakasle onak izan ditu beti, Lekuona jauna buru dala. Irakasle onak... naiz izkuntza-saioan, naiz kultura-saioan.

—Amabost -ogei asi giñan, eta aietxek diraute; noizean bein... barriren bat edo beste.

—Gure illeroko eskola-egun orrek saio bi ditu: izkuntza-saioa, eta kultura-saioa (euskal-kultura alegia); eta lagunarte ona ere bai, bazkari-bitartean eta bazkalondoan.

\* \* \*

Idazle-eskolak fruitu onak eman dituanik eta ematen dituanik, eziñ ukatu; idazleari lagundu... eta ongi lagundu, idazlanean alkar berotu, elkarren arteko iritziak entzun eta egi-bideak aurkitzen saiatu.

Baiña, nere kezka batzuk agertu ditzadan:

—Zergatik ez ote da jende geiago eskola oietara etortzen?

Aitzaki asko eman liteke noski; baiña galdera bat dator kit biotzaren ondo-ondotik: —eusker a maite al dugu euskaldunok? eta areago ta garratzago: maitasunerako gauza al gera euskaldunok gaur dan egunean?

Egia esan, naiago nuke erantzunik banu.

Alaz ta guziz ere, ikasleak urri badira, idazle onak eta eman-

korrak dirala beroiek... aitortu bearrekoa. Eta pozgarria da benetan alde ortatik begiratu-ezkerro.

—Zergatik ez dugu geiago eta zergatik ez dute geiagok idazten aldizkaritan? Nere aldetik eskari bat egin nai nuke D. V.-ko euskal-orrirako: zenbat eta idazle geiago, zenbat-eta gai ugariago, zenbat-eta bereizketa geiago... obe; saiatu bearra dugu, gauza onik egin nai badugu.

—Zergatik ain liburuxka gutxi? lauren bat edo sortu dira gure artean; baiña, gure asierako asmo artatik... oso urruti gelditu gera.

—Liburu aundiagoak: ekintza onek bere bidea aurkitu duala dirudi... Argitaldari-bidea alegia.

Jakiña! Gai auetaz, galdera-antza aipatu ditudan gai auetaz... luze mintzatu giñezke noski, edo niteke; baiña, esan dudanarekin naikoa izango da nere aldetik; iñork zer-esanik badu, esan beza.

Eskerrik asko.

*P. Berrondo*

## «KARDABERAZ BAZKUNA»

### Nafarroa'ko berriak

Joan den Garagarrillean Juan José Garmendia Jaunak eskutitz bat egin zidan esanaz apez nafarrok billera bat izango ginuela, edo San Migel'en, edo Lekunberri'n edo beste nunbaitean. Bera guregana noiz etorriko zai geunden, baño egunak joan egunak etorri, ez zitzaigun azaldu, ez eta deusen berririk eman. Udazken aldera karta bat bialdu nion, Bazkuna zertan zijoan galdetuz. Baño erantzunik ez.

Egia esan, kardaberaztarrok iya etsita geunden, gure Bazkunak korrok egin ote zuen edo. Beraz poz aundia artu ginuen gaurko Bartzar au eratu zala jakindu ginularik.

Ez dugu ba billerarik egin, elkarrizketarako gairik arkitzen ez ginuelako, ez liburu berririk, ez beste deusen aztarrenik. Elkarrekin gertatzen giñanean ordea, eta batez ere Aralar'en izan genun gogo jardunaldian, Kardaberaz Bazkuna aipatu ginuen askotan, baño ez goraiatzeko, ezer egiten ez duela edo beintzat bizitasunik erakusten ez duela esateko baizik. Gaur ikusten dugu ez ginaudela zuzen gure eritzietan eta, berriz esan, poz aundia artzen dugu Bazkuna bizi dala ta aurrera dijoala ikustean.

Goazen ba danon artean indar eta biotz ematera.

## II Gizonak

## GARMENDIA TA ARZELUS'TAR JUAN JOSE

Kardaberaz Bazkunaren diru-zaia

—Biok lazkautarrak geran ezkerro, ezin galdeko dizut nun jaio ziñan, bai noiz jaio ziñan, ordea..?

—1.917-go Garagarrillaren 3'an jaio nintzan, eta BIONA izeneko etxean zuk dakizunez.

—Etxe ederra benetan..! Baiñan etxea-bera bezein ederrak ziran zuen landara-baratzak. Amaikatxo emakumeak egin zuten anaietan lana..! Ba'dakit, ordea, zu-zerori ari zerala gai oni-buruz zerbit idazten eta eldu dezaiozun, guk, gure arloari... Nun egin zenituan zure ikasketak..?

—Zuk egin zenituan leku berdintsuetan..!

Ba'zan Lazkau'n, Bernabe "bizar-txuri" esaten genion sasi-mai-xu bat Unsuendi'n. Uraxe izan nuan nere lenengo irakaslea. Erri-ko eskolara joan nintzan andik, eta Beasain'go "papar-txurietara" gero. (Hermanos de las Escuelas Cristianas).

—Eta Saturraran'go apaizgaitegira..?

—1.929-go San Miel Biaramonean.

Ez nituan bi urte besterik egin an. Gazteiz'ko apaizgaitegira joan nintzan gero, ta an egon nintzan gerratea sortu zan arteraño. Gaixotegi biurtu zuten orduan gure Gazteiz'ko apaizgaitegia, ta Logroño'ra joan bear izan genduan guk. An egin nuan filosofiko irugarren urtea.

—Eta gero..?

—Gerratera gudari 1.937-garren urtean. Burgos'era lenengo, Guadalajara'ko Jadreque ta Casas de San Galindo'ra gero, ta Calatayud'era geroago, guda bukatu zan arteraño.

—Ibillaldi luzea..!

—Luzegia esango nuke nik. Ez nintzan, nik nai bezein laister, Gazteiz'ko apaizgaitegira itzuli berriro..! Antxen egin nintzan apaiz 1.943-garren urtean.

—Uste dedanez, Tolosa'ko auzo batera etorri ziñan gero apaiz.

—Urkizu'ra..! Ta ez det damurik. Antxen asi bait-nintzan goz lanean..! Amar basarri besterik etzitian orduan Urkizu'k, bai-

ñan ba'ziran Albiztur'tik eta Auzo-txiki'tik etortzen ziran beste batzuek ere, ta ni izan nintzan bertako ume guztien maixu. Ez nintzan, ordea, gazteekin ere aaztu, ta biltoki eder bat jarri nien aueri ere an-bertan.

Baiñan Urkizu'n egin nuan lanik-ederrenetako bat, bertako elizan egin nuan. Itxura berri bat eman nion elizari, ta kanpantorre eder bat jaso ere bai, bere ordulari ta guzti..!

Artean etzan Urkizu'ra biderik, eta gurdietan jaso bear izaten ziran, lan oiek egiteko, bear ziran gauza guztiak. Orduantxe ezagutu nuan auzo-lanaren ederra..!

—Ez diozu gezurrik..! Ni-neroni joan nintzan bein arutz gogo-jardunak ematera, ta ondo dakit, zer esan nizun ere: “zure aitak utzitako ondasunekin egin al'dituzu lan guzti auek?”. Il-berria baitzan orduan zure aita..!

—Iru urte egin nituan Urkizu'n, eta Tolosa'ra ekarri ninduan gero, Tolosa'ko erretore zan D. Wenceslao Mayora'k 1.947-garren urtean.

—Barkatu zaidazu eraskin bat, Juan Jose. Baiñan zure etxeko lan-gela ontan kañoi-bala bat ikusten det, eta ez txikia. Ez da ba, izango...

—Uraxe dezu bai..! 1.936'go Uztaren 30'ean gure etxe barrura sartu zan bala bera..! Etxean geunden gu-danok, eta etzan lertu, Jaungoikoa'ri eskerrak. Orregatik gordetzen det oroigarri bezela..!

—A. C'kako neskatxaekin asi ziñan Tolosa'n lanean. Eta ba'dakit hibe berriak urratzen asi ziñala ere.

—Bai..! Ez nintzan geldi-egoteko jaioa, noski..! Eta gaurko CLUB antzeko bat sortu nuan lenengotik. Izlaririk onenak ekartzen nituan, eta astebete osoko kultura-saio asko eratu nituan. Etzan, an argitu etzan gairik..! Irikiak zeuzkaten mutillak ere ateak, eta antxe egoten ziran auek ere, alkarrizketa goxoan, neskatxaekin...

—Eta ez al'zenduan orduan, irakurgai egokiak saltzeko, liburutegi bat ere iriki..?

—Iriki nuan, bai..!

Atsegingarri zitzaizkidan P. P. C.'ek Madrid'en argitaratzen zituan liburu ta liburuxkak, eta iñungo mugarik ezagutu ez dedalako sekula-edo, liburudenda bat ipiñi nuan, Tapia jaunak bere irarkola zeukan tokian. Eta antxen ipiñi nituan salagai, P. P. C.'koak argitaratzen zituzten liburu ta liburuxkak.

Eta denda auxe izan zala, esango nuke, orain Tolosa'ko Iparragirre zinearetoan dedan TECTICAS DE DIFUSION izeneko liburutegi aundiaren ama..!

—Iparragirre zine-aretoa aipatu dezu arestian ,eta danok daki-gu, zine-arloan egin dezula zuk, zure lanik aundienetako bat...

—Egia da..!

Tolosa'ko parrokiak ba'zuan, eta ba'du oraindik, IGARONDO izeneko zine-areto bat, eta zinema onen ardura eman zidan Parrokiko Erretore jaunak 1.947'go Iraillaren 22'an.

Laister konturatu nintzan, ordea, elizako zinema batek etzekala zer-egiñik, beste zinema batzuek zeuden errietan...

—Eta zergatik ori..?

—Filmak banatzen zituzten etxeak, etzituztelako parroki-zinemak aintzakotzat artzen. Aientzako berdiñak ziran zinema guztiak. Etzegoan ba, filmak aukeraterik. Sailletan bialtzen zituzten, on eta txar. Eta berdin ordaindu bear izaten ziran, bota ala ez. Aukera txarra, noski, parroki-zinemaetarako..! Eta orduan etorri zitzaidan gure-artean ELKARTE bat sortzeko gogoia. Alkartasunak eman-go bait-zigun, bear genduan nortasuna izateko, indarra..!

—Ortarako, ordea, laguntzailleak bear, Juan Jose..!

—Bai, noski..! Etzan ura, nik bakarrik egiteko lana. Ta iru auek izan nituan nere laguntzaillerik jatorrenak: D. Francisco Yarza ta Irigoyen'dar Txomin emen Gipuzkoa'n, eta Javier Maria Echenique geroago Madrid'en.

Entzunak giñan, Belgika'n, Italia'n eta Frantzia'n ba'zala zerbait-egiña arlo ontan ,eta Lapurdi'ko Orthez'era joan zitzaigun Txomin ango Candau apaiz jaunak SANOKI izeneko eliz-zinemaetarako egiña zeukan araudi baten billa.

—Ordurako, ordea, zerbait egiña zeundetean zuek ere..?

—Zerbait bai, baiñan ez gauza aundirik..!

Sei izango giñan alkaturik geunden aretoak: Donosti'ko NOVEDADES, Bergara'ko AZI-ONA, Azpeiti'ko LUMINOR, Errenederi'ko ON-BIDE, Zumarraga'ko ITZALON eta Tolosa'ko IGARONDO.

Gutxitxo artean..!

Orregatik, eta Orthez'ko araudia ondo aztertu ondoren, dei berri bat egin zitzaian parroki-zinemak zituzten apaizeri. Ta Zumarraga'n batzartu giñan 1.952-go Urrillaren 6'ean. Eta egun artan itzemandakoak, andik lau urtera, FIDES VASCA S. L., elkarte sortu genduan Donosti'n Castells notario jaunarenean 1.956-go Urrillaren 15'ean. Naparrokoak ere gurekin ziralarik, talde ederra osatu genduan: 19 aretoko taldea! Ordukoa da FIDES OVETENSE ere..!

—Gero, ordea, España osora zabaldu zan zuen FIDES ori..! Nola izan zan ori, Juan Jose..?

—Ba'du orrek bere ixtori-apurra..!

Billera bat genduan urtekoak Gazteiz'ko apaizgaitegian, eta YA'ko izperlari bat etorri zitzaidan Madrid'etik, guk sortutako FIDES VASCA'ren berri jasotzera. Ta biok-alkarrekin izan genduan alkarrizketa ura, YA'n agertu zuan 1.956-go Iraillaren 20'ean.

Dr. D. Juan Ervás, Ciudad Real'go gotzaia zan orduan, Gotzaidi osoaren izenean, zinema ta orrelako beste jaialdietarako ardura-dun. Eta guk Gazteiz'en izan genduan alkarrizketa irakurri zuan noski izparringian, eta besterik-gabe idatzi zidan, guk Euskal-erria'n sortutako FIDES ori, España'ko beste eliz-barruti guztietara zabaldu bear genduala.

Eskabide berdiña egin zidaten beste gotzai batzuek ere, ta Madrid'era joan bear izan nuan. P. P. C.'koak jarri zituzten bitarteko, ta Javier Maria Echenique izan nuan nere laguntzaillerik jatorenna.

—Ba'dakit, Juan Jose, luzaro jardungo zendukeyala gai oni-buruz, baiñan Kardaberaz Bazkuna ere aipatu bear degu, ta esan zaidazu laburki, zenbaiterañoko zabalkundea artu zuan FIDES'ek..?

—FIDES VASCA, FIDES NORTE egin zitzaigun, bertan sartzen bait-ziran Gipuzkoa'ko, Bizkaia'ko, Araba'ko, Naparroa'ko, Logroño'ko, Burgos'ko ta Santander'go zinema-alkartuak. Oviedo osokoak artu zituan FIDES OVETENSE'k. Madrid'ekoak, Toledo'koak, Ciudad Real'goak, Cuenca'koak, Guadalajara'koak, Soria'koak, Segovia'koak, Avila'koak, Valladolid'koak, Palencia'koak, Zamora'koak, Salamanca'koak, Cáceres'koak, Badajoz'koak eta León'goak FIDES CENTRO'k. Valencia'koak, Castellón de la Plana'koak, Alicante'koak, Murcia'koak eta Albacete'koak FIDES LEVANTE'k. Barcelona'koak, Tarragona'koak, Lérida'koak, Girona'koak eta Islas Baleares'koak FIDES NORDESTE'k. Eta Huesca'koak, Zaragoza'koak eta Teruel'goak FIDES ARAGON'ek.

Itz batean esateko 617 areto zeuzkan FIDES'ek, bere ardura-pean, 1.963-garren urtean..!

—Ba'da zeozer, Juan Jose.

—Eta FIDES bakoitzak, ondo dakizunez, ofizina eder bat eskatzen du. Ta ez nolanaikoa, teknika berriz eta zinema-gaietan gizon-ikasiekin eratua ta elizaren erakutsietara jarria..!

Ni-neroni ere, beste zine baten jabe egin nintzan orduan, Tolosa'n: IPARRAGIRRE zine-aretoaren jabe, alegia. Ta antxen jarri bear izan nituan FIDES NORTE'ko ofizinak..!

—Eta ez al'zuan zuen elkarte onek, atzerrian otsik izan..?

—Bai..! Ta Bruselas'en beren lantokia duten O. C. I. C.'kekoak deitu zidatelako, Venecia'ra joan bear izan nuan bein, laterri-ar-

teko billera batean gure berri ematera..! (O. C. I. C. = OFICINA CATOLICA INTERNACIONAL CINE).

—Eta ez al'dizute oraindik-orain, FIDES NORTE'KO ZILLARREZKO EZTATAK ZIRALA-TA, ohorezko oroigarri bat eman..?

—Bat..! Eta Cirarda jaunak eman zidan, eman ere, Madrid'en, España'ko gotzai guztien izenean, eta ospe aundiko jaialdi batean.

—Naikoa izango degu zinemaz, Juan Jose..!

—Beste zertxo bat esan ezkeru, bai..!

Zuk ikusi dezunez, parroki-zinemak babesteko, ta ez beste ezertarako, sortu zan FIDES, baiñan eman du beste fruitu bat ere, ta oso ederra gaiñera; gaztetxoentzat filmak sortzen asi bait-zaigu orain, ta JUVENSA izena artu du ortarako (1).

—Ondo dago..!

Eta Iparragirre zine-aretoke TECNICAS DE DIFUSION LIBURUTEGIA ta JAKIN ETA ERAIN izeneko biltokia alde batera utzirik, goazen zuzenzuzen Kardaberaz Bazkunera, zu izan bait-zaizugu Bazkunaren buru argia..!

—Ez orrenbesteraño..!

—Bai, Juan Jose, bai..! Kardaberaz Aitaren eriotzako 200-garen urtemuga zala-ta, Bazkuna berpiztea Deba'n erabaki genduan (1.970), ederrak bezein motzak ziran gure asmoak. Zuk atera zenituan lenengo AUNDI-OTSAK Bazkunarentzat. Bazkideak bear ortarako, ordea, ta zure berebillak etzuan atsedetik izan. Zenbat kilometro ibilli ote zituan..?

—Jaungoikoa'k bakarrik daki, baiñan ez det damurik. Oso-barruan naraman nik nere euskal-zaletasuna, ta FIDES'ekin egiña, egin nai nuan Kardaberaz Bazkunarekin ere. Ta eskualde guztietan BATZORDEAK sortzea izan zan nere lenengo ametsa. Ta orrela sortuak dira Araba'ko, Bizkaia'ko ta Naparro'ko batzordeak. Ez nituan, ordea, Bidasoa-arutzko ta Venezuela'ko euskaldunak aaztu, ta an-aietan ere ba'ditugu gaur kardaberaztarrak, eta zintzoki erantzuten dutenak gaiñera..!

—Baiñan etzan ori aski zuretzako. Ba'zan beste lan bat ere egi-teko, ta baztarrik-bazter ekin zenion, baztarturik eta argitaratu-gabe zeuden idazkien billa..! Nundik sortu bear zenduan, ordea, idazki guzti oiek argitaratzeko dirua..?

—Lanak-berak sortzen du dirua. Ta beren lantxoak ain-maiteki gordetzen zituzten idazleeri poza emateak, diruak baiño balio

OARRA: "Juvenza" sortu zualako "Barcelonako Venusa" eman zitzaion Garmendia'tar Juan Jose'ri Irailla'ren 20'ean, bertako Montjuich-jauregian egin zan laterri-arteko gaztetxoan zine jaialdian.



aundiago zeukan neretzat. Eta or daude gaur, batenaz-beste, Kardaberaz Bazkunak argitaratutako 17 liburu. Ta argiaren zai daudenak, ez dira gutxiago izango. Ta auen artean On Manuel Lekuona' ren LAN GUZTIAK eta Aita Mokoroa'ren ESAKERAK, bi bakarrik aipatzearren..!

—Eta ez al'dezute iñungo eragozpenik izan..?

—Izango ez genituan ba..! Unerik ederrenean, eta liburu-batzalle batekin tratorik ederrena egin genduan orduan, utzi bear izan genduan gure Donosti'ko lantokia, ta besterik-ezean Tolosa'ko IPARRAGIRRE zine-aretoan ipiñi bear izan genituan gure ofizina ta gure liburu guztien biltokia..!

—Ondo bearrezkoa izan zaizu IPARRAGIRRE zine-areto ori..!

—Bai, gizona..! Baiñan gure eragozpenak étziran ortan amaitu..! On Jose Zunzunegi onik zan artean, oso-errez lortzen genduan gure liburuak salgai ipintzeko baimena, baiñan ura gaixotu zitzaigunean, zailtasun biurtu zitzaizkigun leengo erreztasunak. Ezin lortu genduan, liburu bat irarkolatik ateratzeko baimenik, ta izan ziran iru illabete baimenaren zai egon ziran liburuak ere..!

—Atzerapen aundia Bazkunaren martxa onerako..!

—Aundiegia..! Baiñan etzegoan atzera egiterik, eta ez genduan eragozpen ori kentzeko bide bat besterik: argitaldari-etxe bat sortu guretzako. Ta Bazkunaren izenean baiño errezago lortuko genduala TECNICAS DE DIFUSION liburutegiaren izenean-da, alaxe egin genduan gure eskabidea. Ta 1.974-go Garagarrillaren 25'ean eman ziguten ortarako baimena..

—Eta geroztik zer..?

—Ez degula, ala ere, lo-egoteko asti-aundirik izan. Orrenbeste gauzen ardura duan ofizina bat, ez dala bakarrik ibiltzen. Eskerrak langille on bat arkitu dedan: Garmendia'tar Martin..!

—Eta egia al'da, gure gotzai jaunak ere, erantzunkizun aundiko.

—Egia da bai..! Baiñan ez dezagun aipatu ere. Ez al'zera aspertu..?

—Ondo dago, Juan Jose. Utzi zaidazu, ordea, aolku bat ematen. Gure ikurrak dionez, kardaberaztarrok ezin dezakegu beññere atzera egin, AURRERA BETI baizik. Eta aurrera egingo ba'degu, zure bear gera oraindik.

—Eta ni zuen bear..! Ez bait-nintzake Kardaberaz Bazkunarik gabe bizi izango..!

—MILLA ESKER, JUAN JOSE..!

Sustraitz

Santiago de Compostela'ko gongotzai txit agurgarri dan  
Dr. A. Sukia Goikoetxea kardaberazfarrari

## EGUN ZORAGARRI BATEN OROIPENA

1936'ko San Pedro bezpera zan Bizkai'ko Lekeitio erri txanbelinean... R. M. Azkue aundiak atsegintsu esan oi zuanez. Egun artan zazpigarren "Olerti-Jaia" ospatu zan "Euskaltzale" elkargoak eratuta.

Bertso-aldi, itz neurtu ta olerkien leia ta sariketa aundi jaitu ziran; eta orretaz gañera, Azkuetar Eusebio ta Resurrekzion M. aita-semeari omenaldi berezia eskeñi zitzaien. Euskaltzaindia'ren bilkura, bestelako itzaldi, teatrokizun; kalean dantza ta doñu eta Eleizan otoitzaldi gartsu, lekeitiar argidotarrai gorasarre antzo opa genizkien. Ori ta geiago merezi zutela ezin uka. D. R. M. Azkue'k, goitar bezin apal, an jaso zituan guztiak, alai ta eskerronez, berari ez ezik Aita izan zuanari egin zitzaizkion goresmenagatik.

Festa biaramunean, gogoan dut, agur eta diosal egitera kaiera etorri zitzaigula, iripar eta ontartez beterik.

Motordun txalopa batean sarturik, Orixe, Aita Altzo, Aitzol eta onoko au, itsasoz Deba'runtz abiatu giñan, Azkue eta beste lagunek Lekeitio'n gelditzen ziralarik. Gaztea jendea jaiaz ederki baliatu zan, dantza, doñu eta alaitasunez erri guztia piztuaz. Ez zuten asko uste andik iru atera beste su bat piztuko zala: anaiarteko gudate ankerrarena.

Olerti-jaiak eta olerkari ta bertso-gilleak beren ametsetan pake eta zoriontasuna zutela gogoko, "Apokalipses"ko lau zaldi, ¡mamutzarrak! asi ziran dantzan... Erio, gorroto, odola ta ondamentia ta oñazea bazterretan zabalduaz.

\* \* \*

Alabaiñan orduko oroimen itza! antzi ta aztu dezagun, geroztik berrogei urte joanak bait ditugu. Gudaren ots eta deadarrak itzali dira eta ordeaz, aldeaz aurretik, olerkariok esan zutena entzun dezagun. Bosten bat saristatuak izan ziran: Otamendi, Sukia, Iraizoz, Erkiaoa ta Lekuona zarra.

Zillarrezko abarra Otamendi Iñaki'k irabazi zuan. Guztien artean, ordea, gaur gorapaitzeko bat aukeratuko dugu: Aingeru Sukia du izena.

Apaiz-gai gaztea zan artean eta saristatu zioten bertsoaldi-poema, ohorezko apaimenez auxe duzute:

## APAIZGAIARENA

### Baserri Bidea

Maite diat baserri bidea  
biurrika dirudin sugea.

—  
Intxaur esne zur bi  
alkarren begira,  
erreka urdiñak  
agertzen ez dira.  
Soro, zelai sagar  
kimuak ortzira  
arnariak berriz,  
nere baserrira.

—  
Baserri bide,  
Baserri.  
Zeru bazterra  
iduri.  
Ire oroimena  
eziñen  
nire barrenak  
aantzi.

—  
Urrundu nitxoan  
noizpait iregandik  
egun-senti erne  
gogoan oraindik  
Sukalde bazterren  
Amona bakarrik,  
Gaxo! sarri nire  
galdezka geroztik.

Ama nere dena  
Isil antolatzen  
begiak noizean  
nere gain ezartzen.  
Ezer utzi ote  
ez da gogoratzen  
amonak gordeta  
gaztaia giltzapen

—  
Atzetik ba-dator  
aitona alderoka  
nir nirrez begiak  
ezpañak dardarka  
ba-al oakit utsik  
baserria utzita,  
orbelak basoan  
sagarrak elduta?

—  
Atera zorian  
odolak zainetik  
malko bi urrena  
jario begitik,  
jarrai zak jarraitu  
jaunaren bidetik  
etxea bañan len  
Jaungoikoa baitik.  
Laztan niñin gero  
negarrez,  
neguak galtzeko  
ikarez.  
Larogei urteak  
beteak  
zituan enara  
garaiez.

Bertsoaldi xume ta biotzondo betetako onek Aingeru Sukia'k gaztetandik zekarren etxearenganako maitasun eta Jainkoarenganako deia ao-txuriz, ederki azaltzen digute. Doai oiek urteen buruan aztu ezik zorionez indartu zaizkionak. Baserriko seme dan goierri-tar jatorrak beti ditu maite baserriko bideak naiz "biurrika dirudin sugearen antza izan", lurretik zerura bait daramate. Bertsuok baren zirrarez oretuak erromantiko itxurakoak dira, bai. Aldi artako joera bait zan. Eta gure poeta gazteak Satarka, Jauregi eta ki-deak maisutzat artuak zituan. Bukoliko tankera gogoko zuan. Nola ez! Guraso, aitona-amona eta baserri-etxeko giro epel ta babesean bizituaz. Ba-al da gauza eder ta gozogoarik munduan? Aiek ziran zaldibitar mutikoaren sentipenak! Gero "Kardaberaz" eskolak zuzendu ta sendotuko zizkionak. Apaizgaitegiko ikaskizunak gizon egi-ten ari zalarik, mundua zer dan obeto ezagutzen erakutsi zion; bere begiz gizonen gaiztakeriak sendatzeko bideak, arkitu naiez sakon sartu zan Erliziozko barne-muñetan. Mundua ez da beti ez Olerti, ez Andre Poeisi. Alde batera utzi bearrean gertatzen gera. Onela jokatu zuan Sukia gazteak bertsoz digunean: aitonaren aol-kua:

Jarrai zak jarraitu  
jaunaren bidetik  
Etxea bañan len  
Jaungoikoa baitik...

Lelo ori izango bizitza guztirako "leit-motiv" edo kezka nagusi...

Apaiz eginda gero geiago ikasi bearrak Erroma'runtz eraman zuan. Ez zan astirik galtzera joan, burua argitu ta sinismenean sendotzera baizik.

Era ortan jardunez eta Eleiza'ko jakituri guztietan ondo jantzi-ta, irakasle ta gizon doatsuen ondoan gaur egun mundu zabalaren egoera nolako dan neurtzen ikasi zuan; errialde guztien kultura eta erti-lanak aztertzen ere bai. Erroma'ko egonaldi onek, Vaticanoa'ren itzalean apaiz euskaldun gazteari argitasun berri bat eman zion. An lurbira guztiko jendeen artean biziturik ikusbegi zeatzaren jabe egin zan. Alik eta maizenik ori bai euskaldun adiskideekin biltzea pozgarri zitzaion. Adiskide auen artean Olarra Jose, jaun-andreak oso begiko izan zituan eta beroiek etxekotzat arturik zeukaten.

¡Zer nolako naigabea izango zuan Jose Olarra adiskide begi-koa bat batean, uste gabez il zanean, errez da asmatzea. Orduan Sukia apaiza oñazearen samíñez eta olerkari zala gogoraturik oroigarriztat bertsoaldi samur au ondu ta andre alargunari eskeñi zion:

“Egun artan ikusi gendun  
arentxen biotza atean,  
geroztik, ai! goxo zitzaigun  
lagunari oporraldian  
ango atsedean berriketa,  
arratsaldean babesean,  
Udazkenak ostu digu  
lagun au sagar garaian.

—  
Jauna! entzun!  
Gure otoi negarra  
laister argiz  
jantzi illunabarra.  
Zurean bigun artzen  
giñuzten... Olarra!

Illeta 1947 urteko udazkenean gertatu zan... 1936 garreneko apaizgaia orain obispo-gaien bidetik aurrera zijoakigun! Jaunkoaren bideak naski! iñork garaiz aurretik sumatzen ez dituanak... D. A. Sukia'ri Erroma utzirik Euskal-Erria'runtz itzultzeko garaia eldu zaio. Laister, Gazteiz'en bertako Apaizgaitegiaren Seminario dalakoan buru izateko aukeratzen dute. Urte batzuetan eginkizun ori zintzo bete ondoren, oraindik gazte zala Gotzai malla ta sagara ematen diote. Almeria ta Malaga izan zituan bere lenengo artzai-barrutiak. Aralar menditik ain urrun eta ain urbil!... Beti goruntz, ordea urrengo mailla Compostela'ko Santiago'n goi-apezpiku izendatua ikusten dugu. Eta emen dago... Erroma'tik agindu dioten zer egin astuna bizkar gañean eramanez. Anitz urtez bedi leku ortan Sukia'tar Aingeru goingotzai txit agurgarria!

\* \* \*

Kompostela'ko Eleiza nagusi Katedral arrigarria, eta Santiago apostoloaren illobia ote dalakoa kristautasunean otsaundiko lekuak dira, Europa guztian ezagunak. Antziña-antziñatik eta erdi-aro osoan, erromesak millaka oñez eta zaldiz zapaldu zituzten bazter guztietatik aruntz zijoazten bide-ta bidexkak. Santiyo apostoloa gurtzera ta pekatuen barkamena iritxi naiez giza-talde aundiak joan izan dira “pelegrino gixa...”

Euskaldunok ez gaituzu pekatari txikienak izan, Ez! Aitor itzagun gure erruak! Onela guztion izenean Etxahun koplari doakabeax *Jondone Jaka'n* izana dugu berak kantuz esaten digunez:

“Bi urte igaran ditiat España'n  
“Pelegri gisa”

Jinko jauna lagun nazazu bear orduetan!

Aldaketa aundiak sortuak dira geroztik. Vaticano II konzilioa garrantziduna ondoren Fedea ta kristautasuna zaintzeko agindu berriak eman dizkigute Euskal-Erria'n Galizia'n eta nun nai oitura izkuntza ta erritasuna indartu bearra dago. Galizia'ko Eliza'ren buruzagi dan Sukia goingotzai agurgarriak badizu aski lan. Gelmirez bortitzaren denboretan gogorrean jokatzen zana gaur Elizako artzaiek bestela bazkatu bear dute kristau fededunen artaldea.

Sukia jauna artzai argi, leun eta bizkorra dala ba-dakigu, Zaldibitar izaki ta euskaldunon izena toki onean utziko duala ziur gaude. Erri xea arduraz begiraturik gallego eraz eziko duala ere bai, Eleizako liturjiak eskatzen duanez. Meza santuan gallego izkuntzaz otoitz egiten ba-dakila jakitea atsegin izan zaigu. Ontaz, barren asegarri izan dakion esan nai diogu Galizia'ko Literaturan ain goretsia; ta erritar xee, nekazarien maitale sutsua izan zan Rosalia de Castro'k senar eta bultzaille aundiena D. Manuel M. Murgia izan zuala. Onen ama Kontxesi Murgia Tolosa'n jaioa. Beraz Rosalia'ren amagiarreba jatorriz euskaldun. Ez al dugu arrokeria piska bat izateko eskubiderik?... Baietz nik uste!

Zeru'tik Sukia'ren amonak billoba Compostela'ko goigotzai da-goala ikusirik bere eginbear astuna ongi ta osoro betetzeko laguntza Jaungoiko'ari eskatuko al dio. Eta Onek ezin uka emakumezkoen birtartz doarik ugarienak opa izan bait ditu.

1975-Epailla.

*Antonio Maria Labayen*

### III

## Euskera

## BATASUNERA BIDEA ETA KADABERAZTARRAK

Esan dezadan, leenik, azkenengo billeran nik agertutako iritzi batzuk beste idazle batzuek sendoturik ikusi ditudala. Batasuna (naiz eta norbaitzuek besterik erausi), egin gabe dago. Gauetik goizera lortzekoa ere ez da. Euskal-idazle askoren maisu dan Mitxelena Jaunak berdintsu esan du oraintsu. Mitxelena bezelako baten lumatik olako aitoprenik ateratzea pozgarri da. Batasunik ez ori batek baiño geiago ez du gogotan artzen .Oker dabilta, nonbait, Mitxelenaren eskolaketzat badaude ere.

Gure literatura-giroa aztertuz, utsune bat arkitzen nuen, literatura sortzaillerik urri izatea. Nobela-saillak, teatro-saillak lantzailerik gutxi du gure artean, gero ta gutxi dala beste idazle batek, Azurmendi. Saio (Literatura) da oraingo joera, edo, zeatzago esateko, eskola-literaturarako. Jakintza-sail bat edo bestean sartu eta or dator idazlea, jakintz artako astapenak ematen nola edo ala. Sakonago edo azalago, ongi edo gaizkiago erabiliko du gaia, baiña aurrera. Geienetan sasi artean sartua dirudi eta ez da bat ere arritzekoa, baldin aren euskera sasiz josirik edo urratuz beterik ateratzen bada: aren gogorra, arantzaduna, traketsa, gurpillik gabea izatea ez da mirari. Gaia berez latza, menderatu gabea, euskera menderatu gabeagoa, zer aterako besterik ortik? Ortik aterako dan liburuak nekez emango du bigarrenez irakurtzeko gogorik. Argiak gaude olako liburuen inguruan egin bearko balitz euskeraren batasuna.

Ala ere, guztiok bear genuke (eta guztiok nai dugula uste dut) euskeraren maitasuna maite, batasun ortara jo, gure arteko ezberdintasun batzuk garaitzen edo kentzen saiatu. Eta ona nik azkenez ukitu nuen gaia. Kardaberaztarren artean ere ez da agertzen euskera baturik. Al duenak al duena egiten du, nai duen bezela edo daki bezela. Batasunik gabe euskalkien barnean bertan ere. Eta badirudi ez lukela ola izan bear. Kardaberaztarrek badute beren idazle-eskola eta eskola orrek nolabaiteko batasuna sortu bear luke. Leenbizi, euskalki bakoitzaren barnekoa.

Giputza dala, Bizkaikoa dala dala, naiz edozein euskalkitakoa, leenbizi euskalki bakoitzaren barneko batasuna bearko dugu, euskalki bakoitzak bere barnean egin bearko du egiñala batasunera jotzen. Gero euskalki bakoitzak, egin alean, kontuan izan bearko

ditu beste euskalkiak, aiengandik geiegi ez urruntzeko, guztiek erdi-bidera etorri eta elkar aberastu al dezaten.

Ez da au Kardaberaz-Bazkunaren egitekoa, ez da ortarako sortu, noski. Kardaberaztarrek egingo luketen batasuna Kardaberaztarrena izango liteke, ez euskaldunena, ez euskal-idazleena, talde batena baizik. Baiña Bazkunak zerbait egin dezake; baiña ez bakarrik. Beste euskaldunekin batean jokatu bearko du, beste taldeekin batean. Bide berean dabiltzan guztiekin batean, batez ere urbillenekoekin, urrats beretsuan dijoaztenekin. Guztiek elkarri esku emanez, elkarri argi egiñez, elkarri lagunduz.

Eta urrutiagoko taldeekin ere bai? Auengandik ere zerbait zerbait ikasi dezakegula eta ikasi bear dugula uste dut. Askok lege bixi asko arkitu edo asmatu dituzte, eta lege estutzat artu eta besteie ezarri naiez dabiltzala dirudi. Orrez gaiñera, erderakada eta gaskoinkada asko sartu nai dute, geiegi, gure euskeran. Olakoetan ez dugu aiei jarraitu bearrik, eta ez jarraitzea onena. Baiña aien gan ere dana ez da bazterrera botatzekoa. Badute onik ere. Talde oiek daukaten ona ez da taldearena, euskerarena baizik, taldeak sortu aurrekoa. Beraz ori gurea izan daiteke. Emen ere, bide-erdia lege; elkarri bide-erdira atera gakizkion.

Au ote da Kardaberaztarren jokabidea? Ez argiegi. Geien batez, Kardaberaztarren artean bakoitzak bere bideari jarraitzen dio. Atera dituzten liburuak ikustea aski da. Batzuetatik beste batzuetara alde nabarmena ez al dago? Zergatik ori? Bear bada, ez zaio iñori bere eskubidea moztu nai izan. Bear bada, beste asmo batek eragiñik jokatu da orrela: idazlea gerrate-aurrekoa da, edo gerratearen ondorengo utsunekoa, ixillaldikoa; orregatik, ixillaldi artan, ixillean lan egin zuen idazle orrek, eta orain argitaratzekoan, bere aldiko kutsua utzi nai zaio, eta dagoen dagoenean argitaratu nai da. Au omen da, ain zuzen, Kardaberaz taldeak, argitaldari bezela, dituenetako asmo bat: ixillean gorderik gelditu ziran lan batzuk argitaratzea, alegia. Eta leengo idaz-lanei nola edo zergatik kendu egin ziraneko kutsua? Beren jatorrean uztea obe. Ala ere nik uste dut ez dutela lan batzuek beren kutsua galduko, orrazketa puskaren bat egiñez. Esaterako, zergatik idatzi zurigo, geigo, eta ez zuriago, geiago? Batasunerako bidean sartu nai badugu, nik uste dut olako laburpenak utzi egin bearko dirala.

Ontan, Kardaberaz-Bazkunak zer egin dezake? Euskera baturantzako joera artua daukan ezkerro, erdi-bidea edo erri-bidea dala-lakoa, ortik aurrera jo bearko luke. Lege estu zorrotzegirik ezarri gabe, idazle-eskolak erabakiko lituzke puntu batzuk. Ortarako ere bada idazle-eskola ori; berak aztertu eta argitu bearko du euskeraz idazteko erarik jatorrenak zein diran, edo zein diran araurik jakiñenak eta guztiek edo geienek on artzekoak, eta zein ez. Guztiak

iritzi batera etortzea ez da beti errez izango; baiña azterketa on bat egitea beti izango da mesede eta argigarri.

Gero liburuak argitaratzekoan, ez da alperrikako gauza izango zuzentzaille edo aztertzailleren bat edo bestea izatea. Bear bada, onelako zuzentzailleek gure artean ez dute izen onik, baiña ori beste izkuntza batzuekin ere gertatzen dala uste dut, esaterako katalanekin. Nola nai ere, Kardaberaztarren artean zuzenketa ori idazlearekin itz egin eta iritzi batera etorrita egingo liteke.

Nik ez dut bide oberik ikusten Kardaberaztarrek beren idazlanetan nolabaiteko batasuna erakutsi dezaten.

L. Akesolo

## EUSKEAREN BATASUNA

### Eta euskalkien indarra

*Oraiñ arte* euskalkiak izan dira Euskeraren indarra erriaren agoan.

*Bitartean*, bere batasuna eginda zeukaten ele eta izkuntza zenbait (latiña beuren artean) ilda daude liburuetan; literatura askorikin, baiña, ilda.

Latiñari buruz bagera, bere latinkiak (romances) bizirik diraute oraindik errien agoetan.

*Euskera "batua"* ilda jaio da; ez bait du errietatik iñork orrela itzegiten.

*Alaz ere*, batu baten moldeak bearrezkoak ditugu literaturaren aldetik.

*Baiña*, Euskalkiak (giputxa, naparra, bizkaitarra, lapurtarra... ill gabe.

Euskalkiak ilko diran egunean ilko bait da Euskera berbera ere errien agoetan.

*Bi zaldi* bear ditu Euskeraren gurdiak aurrera ariñ-ariñ joango bazaigu: literatur-euskera-batu bat, eta euskalkiak bizirik erriaren agoetan.

*Batu bat* bear da.

Goitik poderioz eta bortxaz trokelen bidez jota egin-da, edo beetik zabalduaz... Norberak ikusi. "Gustoekin ez bait da disputarik".

*Indarkeriaren* emaitzak, ordea, gure inguruan ikusiak dauzka: batasuna (unifikazioa) egin zan goitik aginduta.

Ogeita-amar urteren buruan lengora gatoz herriro : orduan trokelez bat egiña, oraiñ bereiztera.

Indarkeriaren bidea artzea, gauzak ogei ta amar urte atzeratzea besterik ez da izanen. Indarrez egiten diranak burnian balioko dute (burnian bertan ere, burniak bere giroa bear du ; ez da otzik egiten ; ondo gorituta, baizik), baiña gizaseme-emakumeen biotzetan ez du balio inundik ere.

\* \* \*

*Betiko leloan* sartuta gaude ; persona ala elkartea ?

*Personari bakarrük* begiratzeak oker audiak ekarri dizkio giza-diari ; zenbait mesede ere bai.

*Elkarteari bakarrük* begiratzeak mesede aundiak dakartzki bere orrekin ; baiña, kalterik ere ez da falta. Kin-kan gabiltza. Justizi eta zulentasuna eskatzen diguten erdiko puntu ori, nun dago ?

*Batasuna euskalkirik gabe*, zer da ?

Euskera biziaren eriotza : liburutegiak ederrak.

*Euskalkiak batasunik gabe* ?

Perfezio gutxiago, liburugintza gaitzago, jakinduri-bideak estuago. Euskera bizirik, ordea.

*Pelotari onak* ezker-eskubiak, biak bear ditu, aurrera joango bada. Euskerak ere batasunarekin batera euskalkien aberastasuna eta bizia, biak bear.

Euskalki guztien aberastasunak batera ekarri, euskalkieri leporik moztu gabe...

\* \* \*

*Bukatzeko* : Aolku apal bat ikastoletako aurreri buruzkoa. Ona : zenbat eta aurra gazteago, orduan eta amaren izkuntza bearezkoago. Amaren euskalkian aurra azi bearko, gero batasunean eziko badegu ; *Laboratorio utsean* sortutako Euskera jaiogabe gal dutako aurra da.

A. Arrinda

## EUSKAL IZKELKI-IZTIA TA NIRE MAIXU-LAN NAGUSIA

### IZKELKI-IZTIA GAUR

Izkelki-iztia edo dialektologia, gaur egun, jakin-bide garrantzitsua dogu. Lan ixilean, bear ba'da, baiña izkelki-zaleak gogotsu diardue lanean. Emen gure inguruan be bai, baiña, batez be, erbes-teetan.

Gogoratu dagiguzan batzuk : ALDC "Atlas lingüístico del Domini Catala egiten diardue". ALEA "Atlas Lingüístico y etnográfico de Andalucía" : Au Manuel Alvar'ek egin eban 1961'ean. ALEIC "Atlante Linguistico-etnografico italiano della Corshica", 1942'an. ALF "Atlas Linguistique de la France" Gillieron'ek 1918'ean. ALG "Atlas Linguistique et Ethnographique du Massif Central", Seguy'k 1957'an. ALPI "Atlas Lingüístico de la Península Ibérica", Navarro Tomas'ek, 1962'an. "Atlas linguistique del Pyrenées Orientales edo ALPO", Guiter'ek 1956'an. ALR "Atlasul lingvistic ramân" Pusca-riu'k 1938'an. ALW, "Atlas Linguistique de la Walonia", Haust'ek 1957'an, e : a. Oraintsu Alvar'en laguntasunaz Aragoi'ko Lur-irudi txorta egin eban Buesa irakasle ospetsuak, euskerea aitzu barik.

Errez ikusten da ba, gaurko mundu onetan izkelki-zaleak gogotsu diarduela euren lanetan. Eta lan oso ederrak eta jakingarriak egiten dira alde guztietan.

### GARRANTZIA

Garrantzi aundia dauka izkelki-iztiak.

Aitatu ditugun lanetan ikusi geinke zelan alkartzen diran etnografia ta dialektologia (izkelki-iztia ta enda-iztia).

Gizona gaur izadiaren ardatz lez artzen da eta alan da izan be. Eta orregaitik gizatasunaren agerpenak zoli ta arduraz zenbatzen dira.

Baiña gizonen izaera bereziak agertzeko erarik argiena euren izkerak eta izkelkiak dira. Gizonak alkar ezagutu nai ba'dogu, izkuntzak eta izkelkiak eta izkerak aztertu bearko ditugu, izkuntzak diran ezker gizonen barrua agertzeko erarik egokienak eta ugarienak.

Ori piska bat sakondu nai duanak, irakurri begi gure Aita Morkoroa'ren "Genio y lengua". Ez da gaurko liburua, guda-aurrekoa baiña, baiña antxe aurkituko ditu irakurleak, izkuntza ta izaeraren

artean diran zer-ikusi aundiak jakiteko bide argi ta sakonak. Lan ederra egin eban Aita Mokoroa'k.

Baiña gizonak eta gizonen izaerea aldatu egiten dira piskanaka. Izkuntzak eta izkelkiak be bai. Ez da Bardiña Erroma'tarren eta Gaztela'tarren izkuntzea, baiña izaerea be ez.

Ez da bardiña antxiñako gure guraso zarren euskerea ta gurea, gu ta eurak be ez, baiña ondo jakiña da euskereak aldakuntza sakonik ez dauala izan, eta euskaldunen izaera bereziak be ez.

Ez gara bardiñak ipar-aldeko ta egoaldeko euskaldunak edo Gipuzkoa'ko Barduloen semeak eta Bizkai'ko karistio'tarrak. Eta ba dogu izkeran be ezbardintasuna.

Baiña izkuntzak eta izkelkiak aldatu eta galdu be egiten diran ezkerero, gauza bearrezkoa da aldi bakoitzeko izkerea ta bere berezitasuna idazti ta ingietan ikurrituta iztea. Orixe da izkelki-iztiak egin gura dauna. Garrantzi aundiko lana, gizonen kondairea sakon aztertu nai ba'dogu.

#### IZKELKI-IZTIAREN AZTERGAIK

Lan zabala ta sakona da izkelki-iztiarena.

Inguru bakoitzean erabilten dan iztegia ta bere ugaritasunak aztertu bearko dira. Iztegian agertzen da Erri osoaren jakintza guztia. Sevilla'ko Isidoro santu jakintsuak bere aldioko jakituria agertzeko naikoa izan eban itzen jatorriak edo etimoak aztertzea. Antzera, gure errietako jakituria ta arazo guztiak agertzen dira erriak darabiltzan itzetan. Bere-bereak ditun arazoetan itz asko ta argiak, gauzak berezitateko oso egokiak erabilliko ditu, bereak ez diran gaietan, ostera, itz illunagoak eta gitxiago, esaterako, nekezaritzan itz asko erabilli ditue euskaldunak, langintzan, ostera, laburragoak gara. Toki-izenak edo toponimoak be kontuan artu bearko ditugu.

Beste sailla bat itz osotzea da.

Emen be, argi be argi, agertzen da izaerea. Naikoa izango da latiñaren deklinabidea ta gure atzizkien esangurea aztertzea.

Eta garrantzi aundikoa joskerea be.

Gaztelarrak edo Espaiña'tarrak ez dira gaur be gugaz ondo konpontzen, begien aurrean ditugu gaurko arazo sakon eta oso mingarriak. Ez dogu aitzu bearko Espaiña'ko erdere ta euskerea post-positiboak edo alderantzizkoak dirala. Latiña askoz urrago dago euskeratik, gaztelerea baiño. Ba leiteke Arabia'rren ikutuagaitik. Baiña enda-iztiak agertzen dauan aditu-eziña ber-bera agertzen dau izkuntzeak eta bere joskerek.

Gizarte arazo mingorrek aztertu nai diranean, gai oneik kontuan artu bearrekoak dira.

Izkelkiaren beste arlo garrantzitsu bat abostegia edo fonetikea da.

Egia esan ba dauka gaztelereak, Euskalerrriaren aldamenean sortua be ba da ta, euskerearen indar bat, naiz ta gaurko izkuntzariak gauza oneri Menendez Pidal'ek emoten eutsan besteko garrantzia emon ez.

Abostegia ei da, ain zuzen be, izkelki-iztiaren santutegia ta arlorik gurena.

Nondik sortzen diran abostegiaren ezbarditasun oneik?

Giza-soiñaren izaera berezitik. Erreztasunera jotzen dabe izlariak. Baiña erreztasun ori ez da izaten gizaki guztientzat bardiña. Esaterako gaztelerez itz egiten dabenak, beste iñork ez dauan lako erreztasuna dauke euren "agin arteko" z frikatiba edo iguzi ori oguzteko, eta euskaldunak TZ idazten dogun fonema edo abots ori oguzten dogu errez, gaztetarrak oguztu ezin dabena.

Ez uste izan gero, giza-soiñaren indar utsa danik, oiturak be onetan indar aundia dauke, izkuntzaren iturri urtsua dira izan be oiturak eta.

#### ZER EGIN DOGUN

Egin dogu zerbait euskaldunak, eta egiten dogu gaur be, izkelki-iztiari buruz. Baiña oso gitxi eta jakin-legeari oso gitxi lotuta.

Euskerearen izkelgi-iztiaren aita Bonaparte Printzea dogu.

Ez zan euskalduna, baiña euskerea ikasi eban eta izkuntza-zalea izanik, bere aberastasunak ikasketa oneitan pozik eralgiten zituan.

Bere lanak, berak idatzi zituan lez, Bizkai'ko Aldundiaren Liburutegian dagoz: El cantar de los cantares de Salomón traducido a once dialectos y variedades de la lengua vasca; El cántico de los tres niños traducido a once dialectos y variedades de lengua vasca; El catecismo de Astete traducido a tres dialectos y variaciones de lengua vasca; Carte des sept provinces basques montrant la delimitation actuelle de l'euskera et sa division en dialectes, sous-dialectes eta varietés. Lur-irudi au oso ondo egiña ta guztiz interesgarria da.

Bonaparte ez egoan bakarrik. Laguntzaille jatorrak billatu eta aurkitu zituan emen Euskalerrriaren, eta here ekiñez eraginda Idazteuna euskeratu eban gure Aita J. A. Uriarte Franziskotarrak.

Azkue aundiak be egin eban zerbait arlo onetan: Bere lanak "Aezkera edo Pitiriberro-inguruko mintzaera" eta "Particularidades del dialecto roncalés" *Euskera* aldizkarian irakurri ledikez. Ez dira lan sakonak, baiña zerbait.

Etxebarría'tar Toribio'k, oraintsu, idatzi eban "Lexicon del



euskera dialectal de Eibar" (Arratetikuen izketia) Au be *Euskara* al-dizkarian agertu zan, 1.965-66 zenbaki berezian.

Navarro Tomas izkuntzalari ospetsuak be egin euskun zerbait: "Observaciones fonéticas sobre el vascuence de Guernica" izan zan bere billaketa-lana eta Donostian 1923'an agertu eban Tercer Congreso de Estudios Vascos'en. Ba dauka beste lan bat "Pronunciación guipuzcoana" deritxona be eta Menendez Pidal'eri egin jakon omenaldian atera eban, 1925'ean.

Ba dira gaur be lan onetan polito ekiten dabenak.

Ez gitxien Madrid'en bizi dan Pedro Irizar etxegilleak. Esku-artean ditugu onen lan eder bi: "Los dialectos y variedades de la Lengua vasca" (Estudios Etnográfico-Lingüístico) Donostian, 1973' ean Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País" ean agertua, eta "Los dialectos y variedades de la Lengua Vasca" (variedades desaparecidas y variedades amenazadas de rápida extinción. Su evolución en el transcurso de un siglo); au Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"n, 1973'an agertu zan. Gaurko izkelkiai buruz be ba diardu gizon langille onek zerbait egiten.

Gure Pedro Pujana'k be ba diardu aditzari buruz olako lan bat egiten eta nire adiskide Patxi Uribarren'ek be Olaeta'ko izkerea sakontzen eta lan eder bat atontzen diarduala entzun dot.

#### LUR-IRUDI TXORTA BAT BEAR

Egin dira eta egiten dira ba, lantxuak gure euskalkiai buruz.

Baiña ori ez da naikoa, ezelan be ez.

Lan sakonago ta zabalago bat bear dogu. Eta lan ori izango litzake, euskereari buruz, beste laterrietan egin danaren antzeko Lur-irudi-txorta edo ATLAS bat.

Orretarako jende gertatua bear da. Orixe esaten eustan, orain urte batzuk nire irakasle izan zan Patxi Altuna'k. Eta onen ustez, gaur Ikastetxe Nagusietan ikasle asko dira euskereari buruz arduratuak, eta onein ikasketak amaitzen diranean, lan ori egin leikena izango da.

Egia esan, asko edo naikoa asko izan arren, oso banatuta gagoz, bai eritxietan baita euskereari buruz be, batua edo ez batua bide dala, baiña lan eder au egiteko, iparraldekoak eta egoaldekoak al-kartu bearren aurkitzen gara, ez gitxiago batu-barri zaleak eta Erri-bideko batu-zaleak.

Olako zerbait egiten ez ba'dogu, gure ostekoak ez daukue par-katuko.

Eta batua bera lortzeko edo bideratuteko be, euskalkiak ondo ta sakon ezagutzea bearrezko gauzea dala, ez dau inñork ukatuko.

#### NIRE MAIXU-LAN TXIKIA

Bost urte dira laster, izkuntzalari-ikasketak Deustu'n amaitu ondoren, neure maixu-lan txikia agertu nebala. Euskeraz agertu di-ran Maixu-lan txikietan (tesinetan) lenengoa izan zala uste dot.

Artu neban gaia "Mungialde, Bermio ta Ondarroa'ko Euskal-Abostegia" izan zan. Deustu'ko Ikastetxe Nagusi'ko Izkuntzalarien Mintegi-gelan aurkitzen da irakurri nai dauanarentzat, euskeraz eta gasteleraz.

Abostegia edo fonetika aztertzen dot an. Ez da lan zabala, ezta sakona be, baiña bai oso interesgarria, dana ez ba'da be zati on bat.

Lenengo abots jatorrak eta euren abots utsak aztertzen dodaz (fonemak eta euren alofonoak, abots bakarrak eta lagundunak (bo-kalak eta konsonanteak) kontuan artzen dodazala.

Orretarako ogei ta amalau esaera gertatu nituan eta erririk erri-entzun zelan oguztuten ebezan.

Lan laburra, baiña pozgarria zan egin nebana. Eta zelako apal-tasuna edo barru-bildurra (konplejua) gure euskaldunak: "Guk txarto egiten dogu berba baiña olantxe egiten dogu" esaten eusten.

Gero, esaera orreik aurrean nituala, agertzen ziran jazoerak le-geetan batu edo katalogatu nituan. Eta zelako jakituria aurkitu ne-ban! Gure baserritarrak, utsik egin barik eta ziurtasunez beteten zi-tuen izkuntza-legeak!

Oneixek ziran, neure ustez, aurkitu nituan lege zurrak.

Gure euskereak abots bakarrak ixtera eta abots lagunduak ago-gaiñeratzera joten dau. Biak dira agogaiñera edo palatalizatzaera jo-ten daben bideak.

Eta onetan aurrerapen bat aurkitu neban, erririk aurrereena Ondarroa zala gairik geienetan.

Mugatzaillea edo zeintzaillea ezarrikeran:

aa, ea, it, ie, i: Alabea, alabia, alabie, alabi.

ea, it, ie, ii: Etxea, etxia, etxie, etxi.

ia, ie edo ia, ija, ije edo ia, ixa: egia, egie edo egia, egije edo egia, egixa.

oa, ua, ue, u: Oilloa, oillue, oillu, euskal itza edo zarra danean.

ua, ue, u erdel itz barria danean: Basua, basue, basu, pane-denia, ue, u.

Eta jazoera oneitan erri bakoitxak bere maillea dauka, Onda-rroa beti gorengo maillan edo, aurrenengo doala.

Agin-obiko surreratua be azertu neban. Toki izenetan eta itz zarretan galdu egiten da: Catena, katea, campana, kanpaea edo Galdakano, Galdakao, Otxandiano, Otxandio. Aditzetan, ostera, on-

do eusten jako *n* abots oneri, aditz izenaren azkenean izan ezik: Edan egizu, edaizu.

Artxifonemak edo abots bandinduak be ugari ditu gure erri-euskereak: *i* abots bakar itxia da onetan indartsuena: il, ill, iz, ix, in, iñ. Or agertzen da agogaiñeratzea be: it, itt, itx; Aite, aitte, aitze. Eta agogaiñerik agogaiñera igarotea: egin dot, iñjot.

*l, r* ta *n'k* be ba dauke agogaiñeratzeo indarra: Anselmo, Antzermo.

*s* ta *z'k* b, d, g gogortzeo indarra dauke: ez da, ezta, ez gagoz, ezkauz, ez ba'da, ezpada.

*n'k*, ostera, gogorra gozotzeo indarra dauka: *ederto*, baiña *onto*; etorriko, baiña egongo:

Galtzeak be ugari jazoten dira gure erri-izkuntza. Erriak abotsik erdiak inguru galtzen dituala uste dot. Esaterako Bermio'n: Basin basu, ba ezin ba'dozu. Aditz-jokoetan be asko.

Antzeratzea edo asimilaziñoa be agiri da, baiña ez ugari. Esaterako: ikusi, ukusi, ikutu, ukutu. Olako zerbaite aurkitu eban Azkuek berak be Erronkari'n.

Abostegiko jazoera oneik oso konturatu bearrekoak dira, batez be idazteko orduan eta ez gitxiago beste euskalki batez itz egiten dauanagaz gagozanean. Alkar ulertzea zaillago egiten dabe eta euskerea batzeo eragozpen dira.

Baiña ez dogu aitzu bear lege berezi batzuk dituela eta erriak orrelan berba egiteko bere zioak dituala. Gaiñera izkuntzalarientzat oso jakingarriak dira.

#### MAIXU-LAN AUNDIA

Irakasle edo "Doctor" izateko agiria lortu baiño len, maixu-lan aundia edo tesis'a egin bear da.

Gai lez billaketa au Bizkai guztian egitea artu neban eta galdera batzuk erri guztietako adiskide batzui bialdu be bai.

Geienak erantzun eusten eta neure esker ona agertu bearren aurkitzen naz.

Baiña lan aundia be ba da ta, beste alde batetik eguneroko lanak oso azpiratuta be ba nauke ta, ezin naz eldu gai oneik batu ta talderatzer, katalogatzer. Udaldiren baten edo, izango al dot orretarako astia.

Au be ez litzake izango askera bildurti bat baiño, baiña ibilliaz bidea egingo genduke eta lan aundiagoak egiteko gertatu.

Ez ete da izango au irakurriko dauan izkelki-zalerik? Ez ete da ordua olako lan aundi ta sakon bat egiten asteko?

Egun ori edo ordu ori eldu arte, gai au obeto aztertzen eta sakontzen ekin bearko dogu.

Gamiz

#### EUSKERAZ ERABILTZEKO ERA BEREZIA DAN «ITANO»

Aipagarria dugu, oso euskerak duen mintzatzeko era berezi au, oso ezaguna, itzegiteko egokia, baiña gure artean gero ta gutxiago erabiltzen dana. I'karen orde ZU'ka erabiltzen asi zanetik, I'karen adizkerak alboraturik izan ziran, ZU'karenen bitartez mintzatzea errazago egin edo zalako; baiña bide batez euskeraren aberastusunak asko galdu bearr-izan du.

Eztugu emen mintzatzeko era berezi au nolakoa dan esango, euskaltzaleen artean ongi ezaguna dalako. Baiña erabiltzeari buruz zabaldua dugun iritzi bateaz zerbaite esan nai dugu, guztiz onartzeo ezala uste dugulako; edo zalantzaz bederen ikusteko dala-dala gagozelako.

Auxe da iritzi ori: menpeko esaldietan erabilli bear ezala; batzuentzat esaldi oietan bigarren notiña elkarbidezko betegarriaz bakarrik azaltzeo danean; beste batzuentzat iñoiz ez. Ba ote dago iritzi orri indarra eman dizaioken egiazko oñarririk? Orixe da gure buruari askotan galdetu dioguna, erantzun zeatza aurkitu eziñean. Eta orrela, zalantzan egoteko ditugun zioak dira agerrerazi nai ditugunak.

Azkue'ren ustez (M. 592), naiz mintzatzen naiz idazten, bein itanoz asi ezker, notin berberari itzegiten edo idazten ari zaion mintzaldi edo idazkian orrela jarraitu bear da beti; osterantzean elitzake bidezkoa izango.

Azkue'ren iritzia beti da aintzakotzat artzeo; baiña idazle batzuei ere irakurtzen badiegu, menpeko esaldietan itanoz yarduten dutela ikus dezakegu; aipa ditzagun batzuk egiztabidez:

Olabide, "Idazteuna": "Ta lur osoak yakingo dik Israel'ek Yaingo *dikala*" (1-Samuel, 17-46). "Oñordekoa au dik; il *dezakagun*" (Luka, 20-14). "Baiña au nongoa *dukan* ba-zekiagu; Kisto'a *zetorkanean*, berriz, iñork ez zekikek nongoa *dukanik*" (Yon, 7-27).

Bustintza'tar Errose, "ipuiñak" (Jesus'en Biotzaren Deya. Bagilla edo Garagarrilla 1963, 19'gn. orrialdean) "VII" "Otsoa ta azeria": "...nire miñak ireak bestekoak ez *dozakala* esango neukek neuk be".

Uzturre (oraingo idazleak guri egindako gutunean), tolosarra: "Eguberriak gainean dizkiagu. Jaunak opa *dezaizkikela* guk nai guziak".

“Herria” asterokoan, “Jainkoa sotoetan” (1961-II-16’gn. 550’ gna. 2’gn. lerroan): “Lehenbiziko aldia diat, mutiko bat nola mintzo *zauiatala*”.

Joannatey, “Ehunbat Sainduen Bicitcea” (Baionan, 1.876) (317’ garren orrialdean): “Ichil hadi, haurra, eta beaun aitac ez *dezauan* holacoric entzun”.

Joannes Leizarraga, “Testamentu Berria”: “*Ezneçanala* hunqui; ecen oraino eznaun igan neure “Aitagana”: baina habil ene anayétara, eta erran iecén...” (S. Ioan, XX-17). “Non nahi duc appain *diçagun* iatera Bazcoa?” (S. Mat., 26-17).

Aipatutako era guzien artean, Leizarraga’ren azken ori, “*diçagun*”, arreta aundiagoaz begiratzekoa dala uste dugu; enura-erazkoa baita, menpeko esaldikoa noski, bertan bigarren notia elkarbizko betegarri bezela bakarrik agertzen dalarik; ta ba-dakigu orixe dala itano’ren era bereziena.

Gertaera berbera, Leizarraga’k beste eraz aipatzen du berak idatzitako beste bi itun-berritan, onela: “Non nahi duc appain *deçagun*?” (S. Luc., XXII-9) ta “Non nahi duc ioanik appain *deçagun* ian *deçançat* Bazkoa?” (S. Marc., XIV-12).

Nabaritzekoa da ortan ikus dezakeguna; aipatutako azken bi Itun Berri’etan “zu” erazko “*deçagun*” darabil eta lenengoan “i” erazkoa, “*diçagun*”. Orrezaz auxe uste dezakegu: Leizarraga’k azken era ori berez erabili zuela, ots, ororen izketan egunerokoa bezela ezagutzen zuenez; eta orrela izan ezker, era-mota ori bakarra etzala uste ditek, ta orren antzeko beste batzuk ere erabiliak izango zirala, apika: “*diçadan*”, “*diçan*” “*diçaten*”.

Alaz ere, era-mota oien antzekoak, Axular’ek ere erabili zituela ikus dezakegu; baña idazle onek ezkie “itano”ren zentzuna ematen, eta orrengatik ezpaia sortzen zaigu, ia esandako Leizarraga’ren era, egitan “itano”zkoa danentz; baña orrelakoa ezpada, Leizarraga’gan “*diçagun*” eta “*deçagun*” erak zentzun berberakoak zirala uste dezakegu (esandako iru Itun Berri’etan agertzen diranez); eta naiz era oiek naiz oien antzeko besteak ere berdin edo erabili ziran zentzun berberaetarako, ta ori nabarmengarria da oso.

Eman ditzagun Axular’en “Gero” idaztian (“IV argitara-aldia” —Zarauz’en— “Itxaropena” irarkolan, 1954’garrenean egin zana. “Euskaltzaindiko Lekuona apaizak prestatua eta aitzin-solastua”), ikus ditezken lau era auek:

“Irakurtzailleari” - XXXIX or.: “...hunek, zer iragaiten den, zer begitarte izaiten duen, eta nor nola mintzo den, abisu eman *diçadan*...”.

10’gn. orr.: “...erleek eta zinaurriek arrazoiñekin erranen *de-raukue*, beha *diçazegula*”;

48’gn. orr.: “...halako faborea, garazia, indarra eta aizea eman ahal *diçazio* Spiritu Sainduak...”;

161gn. orr.: “...handik ateratzeko hunenbat Meza eta Trente-na emanarazi *diçadala*...”.

Ba-da ikusteko ere, “Irakurtzailleari”, XXXIII”gn. orrialdean Lekuona jaunak egiten dion “OAR” au: “Geienetan, aditz-forma zenbait izango da, zuretzat adi-errez ez dan, laburdierazko edo *antziñako* (itz au geuk marratzen dugu) zenbait aditz-forma (forma verbal), gipuzkoerara aldatua (*zerauen* = zien, *lekidikaio* = lezakioke, *berra* = esan beza)”.

Esan dako idaztian, Lekuona jaunak, orrialde bakoitzean, bertan agertzen diran Axular’en adizkeraren gipuzkerazko aldaketak alboan jartzen ditu, ulergarriagoak izan ditezten.

Geron aldetik, adizkera oiek eta Intxauspe ta Kanpion’ek dakarzkitenekin erkatzea otu zaigu, onela jartzean:

<i>Axular</i>	<i>Lekuona</i>	<i>Intxauspe</i>	<i>Kanpion</i>
(Laburdieraz?) diçadan	(Gipuzkoeraz) dezaidan	(Laburdieraz) diezadan	(Laburdieraz) diezadan
diçazegula	dezaiegula	dezotegula	diozategula
diçazio	dezaioke	dizaioke	diozake
diçadala	dizazkidala	dietzadala	dietzadala

Intxauspe ta Kanpion’en adizkerak Lekuona’renai dagozkienak dira.

Adizkera oiek begiratzean, auxe ikus ditek: Lenengo ta laugarren lerroetan agertzen diran Axular, Intxauspe ta Kanpion’enak, alkarren antzekoak dirala, ta Intxauspe ta Kanpion’enak beren artean berdin. Besteak oso ezberdiñak dira.

Antzekoak diran oietan, alaz ere, ba-dago berdin eztan zeatz bat, aintzakotzat artzeko duguna: Axular’enak “*diç-*” itzatalaz asten dira, ta besteak “*die-*” dute lenengo itzatala. Ta Axular’en laurak “*diç-*”z ere berdin asten dira, ain zuzen itanozko adizkera arruntak, “*diç-*” (dikar) eta “*diç-*” (dikar), bezela; bai ta len aipatu dugun Leizarraga’rena, “*diçagun*”, lez. “*Die-*” ori “*diç-*”ren aldakuntza ote?

Zalantza ezta orrenbestez argitzen eta arazoa beste aldetik ere begiratu bear-izango dugu.

Bere egitura oartzean, “*diçagun*” adizkera, “*iç-*” zentzunezkoa dala uste dezakegu; orrela atera ditek, zentzun berean jarri ditezken lau adizkera auetatik (guziok dakigunez enura-eraren adizkerak eskierr-erarenetatik ateratzen dirala gogoratzean):

“zu”: “degu” (eskierr-era) — “dezagun” (enura-era)  
“i”: “diagu (1) (eskierr-era) — “diazagun” (enura-era)

Dana dala, argi dago “itano”ri buruz gure bazterretan asko galdu dala, ta ez da arritzeko “zu”ka ta “i”kazko adizkeretan nas-tea ere izatea, bigarreneko batzuk lenengoaren zentzunaz edo era-biltzeko. Nun edo nola orrekiko azalpenen bat aurkitu? Eztugu uste ziurki ta erraz izango dala; baña badago gure izkuntzaren eto-rrean gertapen bat argitasunen bat eman dizaigukena.

Onarturik dagoen iritziaz, “zu” izenordea ta berari dagozkion adizkerak ere, aspaldin askotasunezko zentzuna zeukaten, erderaz-ko “vosotros” edo “vous” bezela; baña euskeraren erabiltzean, noiz-pait, “zu” ta bere adizkerak ere, bakarreko zentzuna artu zuten, begirunezko “tu” edo “Vd.”en asmoa adierazteko, ta uste dezake-gunez, ain zuzen, aldameneko erdera bien “vos” edo “vous”en as-moa itzultzeko xedeaz.

Ordudanik, alegia, “i” ta bere idazkerak, “zu” ta bereak au-rrean eta aurkako bezela ukan zituzten, eta bidezkoa zanez “i”ren ordez “zu” gero ta geyago sartzen ari-izan zan, alde batetik itzal aundiagoko zentzunean erabiltzekoak ziralako, ta bestetik, bere erak “i”renak baño errazagoak agertzen ziralako, elkarbidezko zen-tzunik eman bearr etzutelarik.

Orrela, lenengo euzkal-idazleak idazten asi zutenean, aldakun-tza ori oso aurreratuta edo zegoen alde guzietan, eta beren aldetik, ausaz, erraztasunagatik edo beste zioak zirala kari, “i”ren erak baztertzea ta “zu”renak erabiltzea nayago-izan zuten, naiz eta, bear-bada, ongi oartzeke egin bazuten. Eta ba-liteke errian erabiltzen ziran “i”renak bezelako erak, “zu” zentzunerako artzea. Oietakoak ote dira, len ikusi dugunez, Lekuona jaunak *antziñako*’ak deitzen dituenak?

“Zu” ta bere adizkerak, askotasunezko zentzuna bakarrik zeu-katenean (orrela izan bazan beñepein) ere, menpeko esaldiak izan-go ziran eta bidezkoa dirudi, orduan, oiek ere itanoz egiñak iza-tea; ta len aipatu dugun Leizarraga’reñ adizkerak ori adierazten duela esan genezake.

(1) “Euskera”, Euskaltzandi’aren aldizkarian, 1.973’koan, “Aditz laguntzale Ba-tua” idazpuruz, esondaten dituzten adizkerak ematen dira, ta 51 ta 52’gn. orrial-deetan, “2. ZER (NOR) -NORI -NORK” taldekoen artean *diat*, *diagu* ta onelako beste batzuk agertzen dira. Geron ustez era oiek eztira talde ortan sartzekoak, “1. NOR-NORK”ekoan baño, Erri’ak orrela darabilzki, “Lengo egunak gogoa” izen-puruz Uztapide’k egin duen idaztarian ikus ditekenez; bere 100’gn. orrialdean esa-kun au irakur diteke: “Kofiaduari erosi zioat”. Adizkera au, bai, ZER-NORI-NORK motazkoa da; eta idazti berean sarri agertzen dira “diat” eta “diagu” NOR-NORK motazkoak bezela.

Alaz ere, ezin atera dezakegu ondorio ziurr eta zeatza noski, ayeruen iturria bezela artzeko baita bakarrik, ta arazoa askoz ge-yago aztertzea dala uste dugu; baña, ziurr ikus dezakeguna auxe da: alboko erderaen eragitea aundia izan dala gurean, eta edozein erderatik euskerarentzat edozer artzen danean, beti euskerarentzat galtzea datorkigula, “itano” jokeran gertatu dan bezela. Orrengatik bearrezkoa lez agertzen zaigu, euzkera erabiltzen eta gure iz-kuntzari buruz egin dezakegun guzirako, erderazkoa izan diteke-na alik eta neurri aundienean baztertzea. Ori ezinbestekoa dala deritzaigu.

*Urrestarazu’tar Andoni*

## GRAMATIKA-FORMAK IDAZ-LANETAN

Idaz-lenatan iru idazte-forma gerta ditezke:

- 1) Gramatika-forma;
- 2) fonetika-forma;
- 3) forma errikoi, lasaitua.

Adibidez, 1) “egin bear det”; 2) “egin biar det”; 3) “ein biet”.

Lenengoari “literatur-forma” esan genezaioke; bigarrenari “fo-netismo”; eta irugarrenari, “forma lasaitua”, erderaz “forma rela-jada” esan oi zaiona.

—Zein bide aukeratu bear degu idazlanetan?

\* \* \*

Aukera ontan, guri beña gertatua esango dizuet; guri, Liturgi-lanetan ari geranoi gertatua.

Gure lanen asieran zan.

Guk egindako lanak, orduan Vicario General zanak, Linguista bati bidali zizkion, iritzi-eske: ea zer zerizkion?...

—Ondo ari giñala, bañan “gramatikaltxo”: gramatika geitxo erabiltzen genduala, alegia.

Ez dakit zergatik esan zuan ori. Bear bada, zenbait imperativo-tan guk formarik “osotuenak” erabiltzen genitualako: “ekarri eza-zu”, adibidez: “ekarri zazu’reñ” edo “ekatzu’reñ” orde. Forma osotuak, osotuenak...

\* \* \*

Andik puska batera etorri zan gure artean beste gauza bat idaz-te-arazoan: literatur-izkuntza “sortu”? “egin”? “bizkortu”? bear za-la, alegia, eta ortarako bear-bearrekoa zala batasuna...

Nik gai ontan beti ere gauza bat uste izan det : batasuna egiteko, errexteko, azkartzeko, hibe bat (eta ez txarrena) "Gramatikan gora joatea", "Gramatika-formaetara jotzea" dala; forma osoetara, fonetismoak-eta alde batera utziaz.

Gramatika-formak garbi erabiltzen dituana, batasun-bidean di-joa. Ez da izango bide bakarra, bañan bai onenetakoa. Arian arian, ezarian-ezarian, egiten dan bidea; leendik ere egiten ari giñan bi-dea. Eta, besteak beste, beti jarraitu bear degun bidea. Gramatika-bidea.

\* \* \*

Gramatikaren kontrako zenbait falta, aipatu bearrik ere ez da-go.

Atzizki gaian: "etxea joan", "etxeRA" bearrean; "amana", "amaRENA" bearrean; "amana", "amaGANA" bearrean; aditzaren jokabidean: "etorri zea", "etorri zeRA" bearrean; "esan dirazu", "esan diDAZU" bearrean; "aitak esan ziran"; "esan ziDAN" bearrean; "jakin banuen", "jakin baNU" bearrean; "etorri ez banintzan", "etorri ez baNINTZ" bearrean; "obe nin", "obe niAN, obe niKAN, obe niÑAN" bearrez; "etortze aizen bakoitzean", "etortzeN aizen" bearrean; "naisun arte", "guk iña" etab. etb.

\* \* \*

Zenbait laburpen, osorik obeto leudekenak: "yaz", "igaz" bea-rean; "benik", "bederen edo bederenik" bearrean; "biñipein", "beñik-bein" bearrean; "keixak", "gereziak" bearrean; "patxara-nak", "baxakaranak" bearrean; "pagari", "pagadi" bearrean etb. etb.

\* \* \*

Ala ere, zenbait aldiz erabilli ditezke forma lasaituak, apur bat laburtuak.

Adibidez: "Esan dizuET", "esan dizuTET'en" ordez. Eufoni-arrazoi bidez egiten bait da laburpen ori; eufoniaz, kakofonia bat baztatu bearrez, bi t orren elkarren ondoan ez ipintzearren. Iz-kuntzak berak; aspaldidanik egiñik bait dauzka olako aldakuntza batzuek; adibidez "Esan diET", "Esan dioTET'en" ordez.

Ari bereko laburpen-ak bait dira, beste bi adibide auek ere: "Aiek esango dizuETE zueri nola mintza", "Aiek esango dizuTETE'ren" ordez. Eta berdin "Baztatu ditu irten zaizkionak, eta baztar-tuko irten leIZKIOKENAK", leDIZKIOKENAK" esan bearrean.

\* \* \*

Olako laburpenak (eta berdin baita zenbait fonetismo ere) gau-za legezko dira, ezertan bada-ta, Teatroko alkarrizketaetan. Litera-

tur-alorrean, alkarrizketa, "barruti berezi" bilakatzen da askotan. Alkarrizketak eskatzen duan bizkortasun ta biziari kalte egin lezaio-ke gramatikal-gramatikalki mintzatu bearrak. Olakoetan legezko ger-tatzen da forma errikoi ta kalekoiak ere erabiltzea. Olakoetan Gra-matikak baño geiago agintzen du Erretorikak.

\* \* \*

Gai ontan arraixku bat ere ba degu aipatu bearrik: Gramatika-ren izenean, Izkuntzari (Izkuntza jatorrari) zipoka jardutea: Gra-matikaren izenean, Izkuntza "zuzentzen" astea...

Euskal-Geografia guztian zabaldurik dauden formak, naiz-ta Gramatikaren argitan, itxuraz, ez oso ortodoxoak izan, errespeta-garriak dira beti.

...Gramatiko bati bein entzun niona: "Bereala etorri nintzan" etzala esan bear; "Nereala etorri nintzan" esan bear zala; eta ber-din "Zereala etorri ziñan"; irugarrenean bakarrik esan bear zala bereala: "Bereala etorri zan"...

Orren antzeko beste zerbaite geiago ere entzuten da al-dian bein: onako au, adibidez: "Oso iztun ona da, iztun ona DANEZ". Rekti-fikazio ori sortu zuanak uste zuan nunbait, DANEZ orren EZ ori adverbium negativum dala, atzizki sufijo modal -Z izanik; "E un elocuyente orador, bien QUE lo es, tanto QUE lo es" edo olako zer-bait dalarik, alegia.

Izkuntzak ba dituzte beren legeak, askotan lege ezkutuak, itxu-ratz Gramatikaren kontrakoak. Itxuraz, ordea; ez egitaz. Lege erres-petagarriak.

\* \* \*

APOSTROFOA.—Apostrofoa, berez, letraren bat galtzen da-nean ipiñi oi da: "iru t'erdi".

Bañan, ortaz gañera, berrogei ta amar urte otan erabilli izan de-gu apostrofoa, baita, bakoitz-izenaren eta bere atzizkiaren artean ere: "Pekin'dik Donostia'ra" ...eta numeral baten eta aren atzizkia-ren artean: "40'tik 50,era".

Orain, olakoetan, apostrofo ordez gioia (—) erabilli oi da.

\* \* \*

Gioia, orain arte, izen "osotuetan" erabilli izan da: "buru-ezu-rra, belaun-katillua"; "etxe-aurrea, mendi-tontorra"...; eta izen el-kardun, correlativoetan: "ezker-eskubi, senar-emazte, anai-arreba"; eta aditz "osotuetan": "antz-eman, eder-etsi"...

Orain beste balio bat geiago eman zaio gioiari: leen apostro-foak zuan balioa: "Pekin-dik Donostia-ra"... Olakoetan apostrofoa baztartua gelditu da.

Bañan oraindik ere, "amar erreal" esateko "2'50" idaztean, apostrofoa erabili oi da...

\* \* \*

Ez bait dakigu, zergatik aldatzen ibilli bear genduan, berrogei tan amar urtean izan degun oitura; bakoitz-izenen ondorengo apostrofoa kendu, eta gioia ipiñi, alegia.

*Lekuona'tar Manuel'ek*

## GARRI, KOR, KOI ATZIZKIAK

Euskal-Morfologian atzizkiak, sufijoak, garrantzi aundia dute. Batzuek, aditz batetik izen berri bat (nomen substantivum berri bat) ateratzeko izaten dira; adibidez, *egon'dik -era'ren* bitartez, *eogerak garbitu'tik -kunde'ren* bitartez, *garbikunde*; *pago'tik -di'ren* bitartez, *pagadi*, etab.

Beste batzuek, *nomen adjectivum* berri bat ateratzeko izaten dira. Atzizki auetatik, guk emen, iru aipatuko ditugu: *-garri*, *-kor* ta *-koi*; oien bitartez sortzen bait degu zenbait izen adjectivum interesgarri, adibidez *negargarri*, *lotsakor*, *berekoi*. Ikus dezagun iru atzizki oien zenbait zer-nolako, labur-labur.

\* \* \*

*-Garri*. Zer esan nai du atzizki onek? zer izaera ematen dio, ezarten zaion itzari?

Ipiñi ditzagun ejenplo adibide batzuek: *Negargarri* = "lamentable" *errukarri* = "digno de lástima".

Bi adigarri oitan ba dirudi *garri*'k "cualidad pasiva" esan nai duala, ots, erderazko *-ble*'k edo esaera "digno de" k esan nai duana.

Bañan ipiñi ditzagun beste adibide batzuek: *berogarrri*, *bixigarri*... Azkue'k *berogarrri*'ri "abrigo, estímulo" esaten dio: eta *Mujika*'k "excitante"ri, *bixigarri*...

Batetik *negargarri* = "lamentable", eta bestetik *bixigarri* = "excitante". Itz bi dirudianez, elkarrekin barruka daudenak...

\* \* \*

Ala dirudi. Bañan, gauza ondo aztartu ezkerro, or ez dago burruka jatorrik. Gauzari nundik begiratzen zaion: ortan dago danaren ardatza; nundik begiratzen zaion, edo *-garri* ori nolako aditzi ezartzen zaion.

Ba dira aditz egilleak eta ba dira aditz geldiak: aditz *activoak* eta aditz *pasivoak* (ez ain xuxen, aditz "zerdun" transitivoak, eta aditz "zer-gabe" intransitivoak; beren esan-naiez "egilleak" edo "geldiak" diranak baizik).

Negar *egiten* degu; bañan gauzari ondo begiratu ezkerro, negarra ez da *egite* bat, *padezimen* bat baizik; aditz geldia, beraz. Bide ortatik, gure atzizki *-garri*'k, *actio* bat ez baño *passio* bat areago esan naiko digu. Bide ortatik, *negargarri* = "lamentable" izango da.

Bañan, alderantzira, *-garri* bestelako aditz bati, *berotu*'ri edo *bizi*'ri edo ezartzen badiogu, *passio* ez baño *actio* areago esan naiko digu: *berogarrri* = "calentador", *bizigarri* = "excitante".

\* \* \*

Ala ere, gauzari sakonago begiratu ezkerro, beste ondoren batera irixten gera: *-garri* beti ere atzizki *activo* egillea dala: *-garri*'k beti ere "excitante de"... "provocador de..." esan nai duala, naiz aditz; "egille" batekin izan, naiz aditz *geldi* batekin: *berotu*'rekin, *negargarri* = "excitante del calor" izango bait da, eta *negarra*'rekin, *negargarri* = "excitante del llanto", eta *errukitu*'rekin, *errukarri* = "excitante de la compasión". Berdin gertatuko bait litzake beste edozein aditzekin ere; dala *ikus*i, *ikusgarri*; dala *nazkatu*, *nazkagarri*; dala *lotu*, *lokarri* beti ere "egille".

\* \* \*

*-Kor*, Zenbait aditzetik izan "substantivum" berri bat ateratzeko maiz erabiltzen degun atzizkia, *-kor* atzizkia da.

Ipiñi ditzagun izen oien adibide batzuek: *xentikor*, *irudikor*, *aserrekor*, *aldakor*, *errukior*, *lotsakor*, *itxaskor*, *ibiikor*, *illezkor*, *ilkor*, *ikarakor*, *auskor*, *erorkor*... *bizkor*... *emankor*? *araginkor*?... baikor?...

Adibide oietatik ageri danez, *kor* atzizkia (*-garri* bezelatsu) batzutan aditz egilleari erasten zaio eta bestetan aditz geldiarri; eta berdintsu, aditz egileari erasten zaionean, izen egillea esan nai du; eta aditz geldiarri erasten zaionean, izen geldia...

Bañan ageri danez, *-garriren* alderantziaz, geiagotan erasten zaio aditz geldiarri, egilleari baño. Ipiñi ditugun adibideetan, ama-bi-bat aditz geldietakoak dira; eta bi edo iru, aditz egilleen: *bizkor*, *emankor*, *eraginkor*. Esan bait liteke, bereizkuntza bakarrik dirala, exceptio, alegia, aditz egilledunak; eta gai ontan arau orokarrak *kordun* izenak beti-edo geldiak dirala, activoak ez baño pasivoak areago, *-garridunen* oso alderantzira, oso bestela.

Ikus adibidez, *ikarakor* eta *ikaragarri*. *Ikaragarri*, *ikaraerazten*

duan zerbait da; eta *ikarakor*, *ikaratzen* dan norbait. *Ikaera*zi, *ikaratu*...

Berdin bait, *errukior* eta *errukarri*, *errukierazten* gaituan zerbait da; eta *errukior* eta *errukitzen* dan norbait. *Errukiera*zi, *errukitu*...

Gañerakoan, *-kor* atzizkiaren antzekoa da *-bera* atzizkia: *errukior* = *errukibera*. Eta *erruki*'ren arian, *errukarri*'ren antzekoa da *errukin*: "*Errukiña*, ori egin duana!"

\* \* \*

*-Kor* atzizkia oso egoki erabilli izan dute norbaitzuek, izen berri batzuek sortzeko; *baikor* adibidez, "optimista" esateko. Ala berean baita *emankor* ere, "fecundo, generoso" esateko.

*-Koi*. Atzizki onek ere ba du *-garri*'ren eta *-kor*'en antza: irurok izen adjektivum'ak sortzeko erabiltzen ditugu: *-garri*, indardun, activum bezela, *-kor*, aul, passivum bezela; *-koi*'k, berriz, bere aldetik, beti ere makurtasun zerbait esan nai du.

*-Koi*'k ba du zer-ikusi, *-bera*'rekin. *Negarbera* esaten degunean esan nai degun makurtasuna bezelatsu esan nai du, adibidez, *elizakoi*'k, elizarako makurtasuna; eta berdin, baita, *etxekoi*'k ere, etxerako makurtasuna.

Makurtasuna, "propensión". Diferentzi batekin, ezik; *-bera*'k berezko, ez ain gogozko, ez ain psikologiazko makurtasuna esan nai duala: berezkoa; *-koi*'k, alderantzira, gogozko, psikologiazko makurtasuna. Eta ola *-koi*, izan diteken atzizkirik egokiena da —ondo erabilli ezker— psikologi-itzak (beti ere ain bearrezkoak ditugun itzak) iraizean, bear diranean, sortzeko.

Orrela, *elizakoi* eta *etxekoi* bezela, esan bait dezakegu, baita *berekoi* ere ("egoista") eta *etxerakoi* ("retirado"), eta *barrukoi* eta *barrurakoi* ("meditativo", "introvertido") eta *eskurakoi* ("domesticado"). Eta *berekoi* bezela esan bait liteke *besterenkoi* ("altruista") etab.

Ari berean sortu bait du norbaitek *errikoi*, "popular" esateko, naasitxo ezik, "popular" baño "erri-maite" esateko egokiagoa bait da gure *errikoi*: "erri-maite", ots, berak erria maite duana, ez erriak bera maite duana...

\* \* \*

Atzizki oien antzekoak dira baita beste batzuek ere: *-ti* adibidez; *lotsati*, *negarti*; eta *-tiar*: *goiztiar*, *berantiar*... eta zenbait atzizki-izen: *ontzi*, *itzontzi*; *iturri*, *gezur-iturri*; *jai*o, *eztijario*...

LEKUONA zaarrak

## IV

### Euskal-erria

## ALTZOAZPI'N ARTE ROMANIKOA

Altzoazpi, aspaldidanik historiko leku izan da Gipuzkoa'n. Eta gaur iñoiz baño areago.

### ORAIN BEDERATZIREUN URTE

Orain bederatzireun urte, San Juan de la Peña'ko Monastegian pergamino bat idatzi zan Altzoazpi'ri buruz.

Don Garcia Aznarez eta aren emazte Doña Gaila edo Galga, aurkeztu ziran Monastegi artan, ango monjeai erregali bat egitera: Olazabal'go San Salvador'en Eliza; Olazabal bait zeritzan ezik orduan Altzoazpi'ko Ballada.

Anartean Altzoazpi'ko Eliza, ango Olazabaldarren familiaren "patronatokoa" zan. Bañan andik aurrera Patronato ura San Juan de la Peña'ño Monastegira pasako zan. Andik aurrera San Juan de la Peña'k bidaliko zuan Altzoazpi'ra bear zan Apaiza, Monastegi arren kutsutik, ain xuxen, "Abade" esango zitzaion Apaiza.

Artean, Olazabaldarrak berak izan zuten beren gain, beren patronatoko Elizaraki Apaiza billatu-bearra eta Iruñe'ko Gotzaiari aurkeztu Gotzaiak izenda zezan Altzoazpi'ko apaizgorako, eta, ortaz gañera Balladako amarrenak eta "primiziak" bildu etab. Andik aurrera San Juan de la Peña'ko Monastegiak egingo zuan lan ori.

Ori esan nai zuan, egun artan San Juan de la Peña'ko Monastegian egin zan eskritura-idazkun ark. Patronato bat esku batzutatik beste batzuetara pasatzea. —

### PATRONATOKO ELIZAK

Patronatozko Elizak leen asko izan bide ziran emen auetan, zala Patronoak berak Eliza egin zutelako, zala Eliza Patronoaren lurrean egin zalako. Zana zala, Patronatoko Elizak asko ziran.

Patronoak geienean Aaida Nagusiak (Parientes Mayores) izan oi ziran. Eta jende aiek Patronatoaz baliatzen ziran, errietan beren agintaritza ezartzeko. Elizarako Apaiza berak izendat, gero,



poliki-poliki, Erriko Agintariak ere, Alkateak-eta, berak izendatze-ko... Eskerrak. Aundikien politika orren aurka Erriak gogor jokatu izan zutela!... Berastegi batean irurogeita geiago urteko auzia izan zuan Erriak, "Berastegiko Jaun" izan nai zukean Jauntxoaren kontra, Patronato-kontu ortan; eta aizkenean Erriak irabazi...

Ez dakigu zergatik, orain bederatzireun urte, 1025'gn urtean Olazabaldar familiak San Juan de la Peña'ko Monastegiari erregali-egin zion "San Salvador de Olazabal" zeritzan Elizaren Patronatoa. Pergaminoak dionez. Patronoen "animen erremediorako": "*pro remedio animae nostrae*". Kontua da, gero pergamino ori izango zala, Gipuzkoaz mintzatu zan dokumenturik zaarrenetako bat. Piska-bat leenagokoa izan bait zan, 1015'ean. Donostia'ko Eliza Leire'ko Monastegiari Nafarroa'ko Errege batek erregali egin ziona. Eta puska bat gerotxuagokoa, berriz, 1081'ean, Kastilla'ko Errege batek San Millan de la Cogolla'ko Monastegiari Astigarribia'ko Eliza erregali egin zionekoa. Iru dokumentu, Gipuzkoa'ko Historiari dagozkion zaarrenak.

#### PERGAMINO BAT SOSPETXAGARRI

Bañan, askotan oi dan bezela, San Juan de la Peña'ko pergaminoa urteen buruan zenbait historizalek arbuaturik zeukaten. Alde batetik olako antziñatasunezko pergaminoak, askotan, gezurrezkoak izaten diralako: eta, beste aldetik, dokumentu orren idazkera ala-olako xamarra zalako (latin izugarri arlostea, eta errien eta auzoen izenak nolabait idatziak etb.) bañan batzuentzat batez ere pergaminoak "Olazabal'go *monasterioa*" aipatzen dualako; eta Altzoazpi'n ez arkitzen, iñoiz iñolako monasteriorik izandako aztarrenik...

Ori ziotenak uste zuten, nunbait, pergaminoak zion monasterioak frailetegiren bat izan bear zuala, eta ez (zan bezela) "patronatozko Eliza" xume bat, ori bai, "abadea" zeritzan Apaiz batekin...

Ortaz gañera, nolana zala, Altzoazpi'n etzegon. XI gizaldiko itxura zuanik ezertxo ere... agirian beintzat. Bañan, gauzak nola diran, agirian ez arren, or egon lurpean, gaurko Elizaren barruan, leengo Elizaren oiñarri-illara ederra... oraintsu azaldu bait da, ain xuxen ta ain eroso, orain bederatzireun urteko estilo jatorrean: estilo erromaniko jator-jatorrean: Araba'n Estibaliz'koaren eta Armentia'koaren egitura berean.

Arkuntza onek baztarratzen bait ditu, leen alde ortatik (Histori eta Arkeologi-alde) ziran zalantzak, eta bete-betean sendotzen historitako pergaminoaren jatortasuna...

#### DON GARCIA AZNAREZ, DOÑA GAILA OLAZABAL

Zeintzuk ziran, erregali ura San Juan de la Peña'ri egin ziotenak?

Don Garcia Aznarez, nafarra bide zan, nafar-erriberatarra, eta... gure Altzoazpi'ko Elizaren "patronatoa" zuana, Patronatoa, ez ordea, berak berez, bere emazte Doña Gaila'ren bidez baizik.

Doña Gaila ura, abizenez, Olazabaldarra zan; Altzoazpi'ko Olazabal-Torre, Olazabal-Etxaldeko alaba, "etxeoandre zabala".

Don Garcia'ren abizena, nafarerriberatarra zan: Aznarez; Aznar baten semea, alegia.

Aznartarrak nafar erriberatarrak zirala esan degu. Orrela gertatzen da, gero, ain zuzen, beren erregalia San Juan de la Peña'ri egitea. San Juan de la Peña Aragon-mendietan dagon antziña-antziña Monastegi otsaundikoa bait zan, Nafar-erriberatik naiko eroso. Orla, berriz, ez bait da arritzeko gauza erriberatar batengan, Monastegi arenganako jaiera eta debozioa, Nafarroan bertako Monastegi batenganako baño geiago ere, gure senar-emazteengan izan zan bezela.

#### URRUTITIK URRUTIRAKO EZKONTZA BAT

Nundik nora egin zan, ordea, Don Garcia'ren eta Doña Gailaren ezkontza? Nafar Erribera urrutiko zaldun baten ezkontza Gipuzkoa barru-barruko etxeoandre batekin?

Nola gertatu zan, ez dakigu. Bañan bai nola gerta zitekean; ez bait zan eziñezko gauza bat.

Don Garcia, itxura danez, Nafarroa'ko Erregearen adiskidea zan (Aznartarrak beti ere ala izan ziran); Erregeak, bere Erreinu, an-da-emen izan oi zituzten adiskideetako bat.

Santxo "Aundi" zan, garai artan, Nafarroa'ko Errege Urte aietan Gipuzkoa Nafarroa'ko Erregeren babesean bizi zan: Nafarroa'ko Erregek zeukan Gipuzkoa'ren militar-babesa.

Gipuzkoa'k bere defentsarako ba zeuzkan zortzi-amar bat gaztelu, Probintzia guztian banaturik: zala Leinz'ko Atxorrotx'en, zala Oyartzun'go Feloaga'n, zala Ondarribia'n, zala Tolosa'tik Azpeiti-bidean Mendikute, zala Zaldibi-Ataun'en AUSA-Gaztelu, Gaztelu aiek beti ere Erregeren esku egoten ziran, eta Erregek izendatzen zituan aietarako bear ziran Zaindariak... bere adiskiderik miñenak beti ere... "Teniente" esaten bait zitzairen Zaindari aiei ("Teniente" a nombre del Rey Don... en el Castillo de...)

Olako "tenenteren" bat izan zitekean gure Don Garcia Aznarez, naiz AUSA-Gaztelu'n, naiz Mendikute'n. Eta Nafar-Erriberatik. Aralar'en zear, bere gaztelura zetorrenean, bidezkoa zan bein baño geiago tan Altzoazpi'ko Olazabaldarren Torrean, ostatuz, gaba pasatzen arkitzea. Mendikute'ra hidean, adibidez, nai-ta-ez Altzoazpi'ko zubian igaro bearko bait zuan Oria-Ibaia.

Ori ola izanik, ez bait da arritzeko gauza, Don Garcia Aznarez'ek eta Doña Gaila Olazabal'ek elkar ezagutzea, eta, aizkenik elkarrekin ezkontzea Erregeren "tenente" gazte apaiña eta Olazabal-Torreko alaba eder aberatsa... Orra gauza nola gerta zitekean...

#### GAI URRI, GARRANTZI AUNDI

Orain pergaminoari gagozkiolarik, ikusten danez, dokumentuaren gaia, etzan garrantzi aundi-aundioka: Eliza baten (Eliza txiki baten) Patronatoa, Olazabaldarrak, eta San Juan de la Peña'ko monjeak artzea.

Guretzat, ordea, garrantzi aundia du, Gipuzkoa'ren Historiarako. Gipuzkoa'ko gertakari bat (naiz-ta txikia) aipatzen duan bigarren dokumenturik zaarrena bait da (lenengoa, Donostia'ko Antiguakoa dalarik). Eta ortaz gañera, Gipuzkoaren izena lenengo aldiz aipatzen dana (ez bait du, ezik, "Gipuzkoa" esaten, "Ipuzkoa" baizik). Dana-dala, Probintziaren izenaren forma zaar bat.

Eta guzti ori, besteak-beste. Pergaminoak Gipuzkoa'ko beste zenbait puntu ere (erri ta baserri eta mendi) aipatzen bait ditu: geienak Altzo-ingurukoak, bañan baita kostaldekoak ere. Aya eta Elkano, adibidez... Orregatik, besterik ez balitz ere, pergaminoak merezi bait du azterketa on bat, gure Agud Querol'ek bein egin zingunaren antzekoa...

#### ORAIN BEDERATZIREUN URTEKO ERROMANIKOA

Bañan gauza ontan benetan garrantzi aundikoa dana, ez da orain bederatzireun urteko pergamino zaarra; pergaminoaren "sendogarri" Altzoazpiko Elizaren barruan arkitu dan leengo Elizaren oikarri-aldia baizik. Eliza erromaniko jator baten zimendu jatorra; Aldare Nagusi aldeko oiñarri-aldi zaarra, Estibaliz'koaren eta Armenia'koaren antzeko abside erromaniko kurpillatua, barrutik kurpillerdi, eta kanpotik danborantza... Arkizune benetan garrantzi aundikoa: 1) erromanikoa dalako (Gipuzkoan gaur ain urri gelditu zai-gun erromanikoa); eta 2) oiñarri-aldi ori pergaminoaren sendogarri

datorrelako: norbaitzuek, gutxienez "sospetxagarri" egiten, bait zuten, Altzoazpiko erregali-pergamino ori, ain xuxen orretxegatik: Altzo guztian olako arkeologi-aztarrenik arkitzen etzalako... gaur, ordea ez bait liteke esan olakorik, orain bederatzireun urteko testi-gu ezin-ukatua or dagolarik...

\* \* \*

Arkitzea nola izan dan aipa dezagun orain.

Gutxi edo geiago, guztiok jakingo dezute, iru urte ba dirala Altzoazpi'n Eliza berritzen ari dirala: asi tellatutik eta barruko ormak eta lurra (lan aundia, asko ta asko auzo-lanean egiña. Olano Gotzai Jaunak (G.b.) emandako txanpenez, bear ziran gaiak ornituz): dana oso garbi eta apain; eta aizkenik lur berria ipiñi bear Elizari, eta lur-lana egiteko, lurra pixka bat atxurtzen asi diranean, or nun arkitzen duten langilleak leengo Elizaren zimeldu-aldia, erromaniko erarik jatorrenkoa... Bañan lanaren luzeaz, presa pixka bat sartzen asia izan, eta, oraingoz, berriz ere estali egin dutela, eta orain estalia dagola, ariketa zulatze-lan legezko bat legezko bat egiten asi arte...

\* \* \*

Oñarri-aldia, kurpil-erdizkoa da; gurutze-egiturarik gabea; ez ain aundi-aundia (oraingo Elizaren zabaleroaren irutatik bi beze-la); eta ez oraingoaren erdian ere, eskui-ormaruntz baizik... eta, gauzak nola diran! ain xuxen zimendu-aldiak eskui-aldeko orma ukitzen duan puntu berean, leendik ere igertzen zala, orma-zati arren argin-lana Elizaren beste orma guztietatik bestelakoa zala (arri aundiagoak, alegia; eta, ortaz gañera, leengo Eliza Erromanikoaren Sagrario xaarra).

\* \* \*

Orra or naiko gauza, azterketa sakon bat egin nai duanarentzat... Ori ere ez bait zaio faltako Altzoazpi'ri, seguru asko.

*Lekuona zaarrak*

\* \* \*

## GURUTZE SANTUAREN JAIERA GURE ARTEAN

Ezin uka diteke, euskaldunok Gurutze Santu zaleak izan gerana, eta aspaldidanik izan ere.

Kristau-erri guztiok izan gera Gurutze Santu zale. Batzuek besteak baño areago. Noizpait, inoiz baño areago.

Euskaldunok, inor bezain zale izanak gera aspaldi-aspaldidanik.

\* \* \*

Gurutze Santuaren irudi ederren bat ez duan Elizarik ez da gure artean. Gurutze Santuaren Elizatxo markatuak ditugu gañera gure antziñako kaltzada zaarrak. Andre Maria'ren Ermitatxo ere bai, bañan baita Gurutze Santuarenez ere.

Ba ditugu gure Elizetan Gurutze Santu barrokoak (Bergara); baditugu Gurutze Santu "romanistak" (Ayete); ba ditugu "platereskoak" (Oyartzun'go korupekoa); ba ditugu gotikoak, asko ta eder askoak (Lezo, Azkorte, Andoain'go Zumea eta Segurako komentukoa); eta, antziñatasunari bagagozkio, baita, nuncan-nuncan, romanikoak ere: ez asko, bañan bai ale batzuek polit askoak, bi brintzezkoak (Aizkorri ta Zerain).

\* \* \*

Irudiaren izaerari ez baño, izenaren formari bagagozkio, berriz, Gurutze Santuaren izenak ba du gure artean, antziña-antziñako izen-forma bat, antziñatasun aundikoa.

Egia da, lekurik geienetan "Gurutze Santu" esaten degula: gutxi-gora-beera, erdaldunak "Santa Cruz" bezela. Bañan Bizkai'an, eta Gipuzkoa'ko zenbait aldetan ere, ba da beste izen-forma bat, zaarragoa: "Santi Kurutz". Forma au ondotoz zaarragoa bait da bere izatez.

\* \* \*

Santuen izenak gure artean iru edo lau forma dituzte, bata bestea baño zaarrago: orain-oraino "San" eta "Santu", eta leenagoko "Santi", eta, antziñako "Donez" gañera, ez "San", ez "Done", izen soillezko forma: adibidez "Saturdi" (Zaldibia), "Zipirio" (Tolosa-Urkizu) eta "Madalena" (nunnai), geienez izenari-*txo* atziz-

kia erantsiaz, adibidez "Bixintxo" San Vicente esateko (Lezo, Endaia).

Eta, "Santi'ri" gagozkiola, or dauzkagu, erderaz "Santi(y)ago" ta "Santillana" ta "Santiuste" bezela (antziña-antziñako formak danak) or dauzkagu "Santibat" (santa Aged) eta "Santimamiñe" (San Mames?)... eta oiekin batean gure "Santi Kurutz".

\* \* \*

Gauza jakiña da, "Santi" oiek, latinezko 2gn deklinazioko "genitivo'tik" artuak dirala; ots, "Festum Sancti...tik" —urrutiko ta aspaldi-aspaldiko iturritik, alegia—; eta, besteak beste, izen-forma romanikoak dira, leenagokoak ez badira: ots, pre-romanikoak, edo bisigotikoak.

\* \* \*

Orixe zan, esan nai genduana, gure, Gurutze Santuarenganako jaiaren zaar-alderdi bat, Aste Santu ontan, gure irakurtzalleai gogorazi bearrez.

*Lekuona'tar Manuel'ek*

V

**Saski-naski**

Donostiatik, 15-IX-70.

Luis Mitxelena Jaunari

Errenderiara.

Agur, Jauna. Zuk emanik, izen berri bat artu det oraintsu. *Frankotiratzaile* omen naiz. Batek baiño geiagok agurtu naute izen berri orrekin.

Zer esan nai izan dezu gaitz-izen ori neri ipiñiaz? Erderazko iztegiara jo det argi billa, Madrilgo akademikoak egin dezuten iztegiara, alegia. Zer da *francotirador*? Ona iztegiaren erantzuna: *Combatiente que no pertenece al ejército regular*. Orraitio, *ejército regular* ori zer dan ez det an ain argi aurkitu; baiña argitasuntxo bat ematen digu, bai,beste itz batean, *tabor* itzean. Zer da au? *Unidad de tropa regular marroquí perteneciente al ejército español*. Eske-rririk asko, beraz, olako gudari ez nauzulako egin. Nik ez det esango gure artean marroki gudari oiek baiño gaiztoagorik ez dabillanik.

Txantxetak utzita, aitortu bearrean nago izen berri orrek gauden egoeran ez nauala bat ere lotsatzen. Ez det bat ere gogorik gure arteko taldekeri edo targo batzuetan sartuta ibiltzeko, naiz eta zu bezelako gizonak artzen dituzten batzuetan buru ta agintari. Zure menpean edo zure esanetara dabilzala agertu nai dute; baiña batek badaki noren edo zeren banderapean dabilzan. Nik ez diet joko garbiegirik ikusten. Zuk besterik uste badezu, edo bestela ikusten badezu, Santa Luziak gorde ditzala zure begiak.

Txantxetak utzita, esan bear dizut ez zabilzala oso zuzen neri gaitz-izen ori ezarri didazunean. Zer dala-ta egin nauzu *frankotiratzaile*? Oker ez banago, eta zure artikulua ondo irakurri ba det, auxegatik izan da: bear zanean itz egin ez nuelako, zure iritiz. Arantzazun ixilik egon omen nintzan.

Eta zuk diozuna egia da, baiña erdizkakoa baizik ez; beraz egia eta gezurra. Nola? Nere esatekoa aurretiaz esana nuelako. Egun batez batzordeari biali nizkion nere iritzi batzuk, nere puntu batzuk, labur izan bazan ere. Erantzunik ere izan nuen, sekretarioak bidalirik. Batzordea nere puntu guztiekin bat zetorrela esaten zidan, ortxe H-ari buruz izan ezik.

Aitortu bearra det erantzun orri alako zorroztasuntxo aurkitu niola (Arantzazuko batzarraren txostena egin zuenak zuri ainbat aldiz ezartzen dizun zorroztasuna, alegia). Egia esateko, batzordeak

bere bidea artua zeukala antz eman nion, eta gai ortan ez zeukala atzera egiteko gogorik.

Zer zan, baiña, nik H-ari buruz niona? Muiñean, geroago esan dudana bera. Eta Arantzazun ez nuen nere irizpidetik ateratzeko arrazoirik entzun, ez jakintzazkorik ez politikazkorik. Ez nuen zure ponentziako gaitan itzik egin. Baiña zuk ez duzu arrazoirik berandu itz egin dedala esateko. Bear daba, ango eztabaida ta elkarizketak arauaren bidetik eramanak izan balira, zerbait esango nuen. Baiña an ez zitzaion araudiari jaramon aundirik egin. Ola, azkenean, guztion gogara, konponketa batera jo genduen. Orixe, konponketa batera.

Konponketa besterik ez zan izan andik atera zan ageria, an sortu zan istillutik ateratzeko irteera bat. Ez zegoen bestetarako girorik. An ez zan benetako erabakirik artu. Nondik asmatu dute zenbaitek baiez, an Oñatiko batzarrari aurea artu zitzaioa, eta batzar orren porrota jakiñik, Euskaltzaindiak benetako erabakiak artu zituela? Oñatiko batzarra ez zegoen galdutzat egun aietan. Zuk baitetz diozu. Berdin esan zidan bein San Martin jaunak ere. Baiña nik dakidana auxe da: an bertan izan zala azkenengo egunean Oñatiko alkate jauna eta nere aurrean ikusi nuen bazkalondoan Aita Vilaçante-rekin izketan, bere erriko batzar nausia nola antolatuko autuetan. Gogoan det Villasantek alkateari esan zion au: alegia, berak ba zeukala Aita Izagirre zanaren lan eder bat, Oñati-aldeko euskerari buruz, eta batzar orretan irakurriko zuela. Eta guztiok dakigu Astola-Durangoko batzarrean utzi ziola Euskaltzaindiak Oñatiko batzarra egiteko asmoari.

Ageriak berak ere zer dio? Ia dana gelditu zala erabakitzeke, geroago astiroago ta zeatzago aztertzeke. Bai, argitu bearrik geiegi gelditzen zan, eta Oñatiko batzarrak ere ez zuen emango argirik nainko. Ez zegoen, ez, orretarako ez astirik ez girorik. Nondik nora datoz orain besterik esaten?

Arantzazun erabakirik artu bazan, erabakirik ez artzekoa izan zan, noski. Politikazko irteera bat asmatu zan, ez besterik. Ageri aren itzak aztertzea besterik ez dago. Argibide bat eman nai zigiten, geroago noizbaiten artuko ziran erabakien aurrerapen bat. Alaolako erdibide bat ongi ikusiko zalakoa esaten zitzaigun. Besterik ezer gutxi. Iñor beartzekorik ezer ez. Eta, ola, politikazko irteera bezela, ez zegoen gaizki.

Eta orain, bi urteren buruan, gaiak zeatzago aztertzeke ezer egin gabe, orain adierazi bear diguzute Euskaltzaindiak benetako erabakiak artu zituela an? Bi urte igarota gero, ori al zan orain egiteko gauzarik egokiena? Ez al zan askoz bearrago orduko ageriak zeukan edo ez zeukan indarra norañokoa zan adieraztea, eztabaidak konpontzeko bidean jartzeko? Ez ote dira gure istillurik gorrienak

ortik etorri, alegia, Arantzazuko ageriari ez zeukan indarra ematetik?

Izan ere, ageri artan korapillo asko daude askatzeko, borondate onez errez askatu litezkenak. Euskera batuarentzat artu bear ziran erabakiak edozein euskalkitarako ziran, ala euskera batu orretarako bakarrik? Arantzazuko batzarrerako deia orretarako egin zan, euskera batuaren oiñarriak jartzeko. Orregatik, andik sortuko ziran lege ta argibideak edozein euskalkitarako ez zirala uste zuten askok, eta arrazoi onez. Baiña bein ori esan zuen bati, Euskaltzaindiaren batzar batean, erantzun zorrotza eman zion sekretarioak, bere izenean, nonbait. Ba zirudian berak bakarrik zeukala an ortaz itz egiteko eskubiderik.

Arantzazuko ageriak ez zueri agintzen euskalkiak betiko ondatu bear ziranik. Ezta urbiltzekorik ere. Ala ere, talderen batean sartuta tiroka dabiltzanak madarikatutzat daukate bere euskalkian idazteari ekiten diona; euskeraren etsaitzat jotzen dute; boikot egin nai diote; olakoen lanik ez da ez aintzat artu ez irakurri bear.

Arantzazuko ageriak ez du inolako agindu esturik. Baiña kontu inork aren esanik agindu estutzat artzen ez badu. Orrela, Euskaltzaindia bidelapurrik maltzurrena bezela agertu nai digute: aurretik eskale apal egiñik, baiña atzean arma izugarria duela, onez eman nai ez dana indarrez kentzeko.

Nik ba dakit Euskaltzaindiak olako maltzurkeria zitalik egin nai ez duena. Ez len, ez orain. Nik uste dut oraindik lengo lepotik duela burua. Ona, bada, zer zion, orain dela bi urte, 1968-ko apirillaren 26, batzordeak apirillaren (10)-an artutako erabakiei utsiz: "Beti izango da kontuan batzuserako norma oiek estuegiak ez izatea. Bein baiño geiagotan, bi edo iru era emango dira, denboraren jardunean zuzenketak egiteko. Baita ere, denboraren buruan premiak bearturik, punturen batzuk aldatu bearra izango da".

Orra Euskaltzaindiak nai zuen bidea ta giroa. Baiña zer gertatu da gero? Norma estuegirik ez zuela emango? Normarik ez, baiña argibidetxo bat eman dueneko, zerbait ondo ikusiko zuelako bat esan dueneko, normarik estuena baiño estuagotzat eman nai izan digute. Eta zer puntu ta puntuondorik aldatu? Emen ez dago ezer aldatzerik. Emen ez dago amen esatea besterik. Laster aaztu dira itz bigun apalak.

Ezin siñetsia gure artean Arantzazuko batzarra ezker gertatua. Negargarria ez balitz, farragarria litzake. Zenbaitentzat gabetik goizera euskera batua dana egiñik azaldu zan. "Euskaltzaindiak itz egin du. Euskera batua besterik ez degu on artuko emendik aurrera". Ola zioten batek baiño geiagok, ez dakit fede onez ala txarrez. Eta beren ustez Euskaltzaindiari jaramonik egiten ez ziotenak birao guztiak merezi zituzten.

Arantzazuk orrenbesteko zorionik ez zigula ekarri uste genduenok arriturik ikusten genduen nola batzuk sariketaren bat antolatzen zutenean iñozo iñozorik esaten ziguten: "Lanak euskera batuan egiñak izan bearko dute". Edo ta eskolaren batean zer irakurri erabakitzen zutenean, argi ta garbi adieraziko ziguten euskera batuan idatzitako liburuak edo euskera batua zerabilten idazleak bakarrik on artuko zirala, idaz leok beren izen ta guzti aipatuz. Beraz, or zeuden euskera batuan egindako liburuok, eta euskera batuan idatzi zuten idazleok. Beraz, zertarako bururik autsi? Alperrekoak ziran ainbeste iskanbilla ta buruauste. Alperrekoak Arantzazuko batzarra ta Oñatiko bera ere. Or genduen norbaitzuen idazlanetan bizi bizirik euskera batu zorioneko ori.

Jakiña: gezurrak oiñak labur omen ditu eta laster azalduko ziran, elkarri joka zebiltzela, bi jokabide: batetik, euskera batua egintzat eman nai ziguten, eta bestetik, euskera orren billa jo ta ke zebiltzen. Zirudianez, ez ziran konturatzen jokabide bi oiek bata bestearen aurka zebiltzala, elkar gezurtatzen zutela. Eta oraindik ere, or dabilta, emen bildu, or bildu, beren buruak ukatzen dituztela konturatu gabe.

Burruka oien artean or dago Euskaltzaindia bere gidaritza galdurik, Arantzazun agindu zuenik bat ere egin gabe, gauzak zeatzago aztertzeke ezer aurrera eraman gabe, nik ez dakit nongo tabarren bateko gudarien esku dana utzita.

Eta bein Lekuona jaunak Arantzazun batasuna oraindik gordin samar gelditu zala gogoratu zuelako, orra or zer gertatu zaion, Tabor-mendien batean lo zeudenen erruz eta beste tabor-gudarien batzuen egitez. Esku argietan dago euskeraren batasuna ta etorkizuna.

Nik ez dakit Lekuonak egiña egin zezakean egokiena zanik. Bear bada, berak eta Euskaltzaindiak beste zerbait egin bear zuen, Arantzazun agindu zueri bideari jarraituz. Olakorik egin ez bazuen, ez zan batena errua, guztiena baizik. Eta egin bearra egin ez zan ezkerro, ongi zetorren Lekuona Jaunaren deia ta oarra. Baiña zoazkio olako kontuekin eta olako esku-igurtzi biguñekin tabor-gudari iskanbillazaleei.

Nik ez dakit zergatik artu bear izan dezuten pekatari nausitzat Lekuona jauna. Eta guztia, anonimo puztu ta lorrin bati jaramon egiñik. Nor ote da berau iñori jokabide illunik eta lorrinik ezartzeko? Lekuona jauna ez da H-aren etsai, ez beste antolamentu berriarik ez dala egin bear dioena, euskera batua lortzeko; baiña ez ditu maite, noski, or zear dabiltzan batzuek artu dituzten bideak ez sortu duten giro biurria; gauzak oiñarri obearen gañean jarri nai lituzke. Orregatik uzkur gelditu da. Beste batzuei ere berdin gertatu zaie; gure arteko jauntxokeri-giroaren aurka jaiki dira.

Olako giro ori Euskaltzaindiarena ez zala adierazi nai izan dute.

Berandu xamar, bear bada. Baiña askozaz beranduago dator or Euskaltzaindiak egin nai duena, bi urte alper ondoren Arantzazuko Euskaltzaindiak artutako benetako erabakia izan zala adieraziaz. Ez ote zegoen beste egitekorik? Ain arro burua jaso ote dezake Euskaltzaindiak Arantzazun egindakoarekin? ¿Ez ote zion lenxeago anonimo batek (geroagoko anonimo berberak noski), egundaiño jorraldia eman nai izan orrexegatik Euskaltzaindiari?

Bururik gabe gabiltza. Noren edo zeren madarikapenaren azpian ote gaude? Neri Isaiasen esaera au dator kit gogora: *Aurak jarriko dizkiet buruzagi*. Baiña Testamentu Zaarreko itzik nai ez balin badezu, or dezu zuk ondo dakizun beste esaera au: *Seyacaz etchun dina ukuzka jagi doa*. Gure artekoa argitzeke ez det aurkitzen ezer argiagorik. Ez gaitezen arritu. Esaera oiek diote olako madarikazioak izaten dirala munduan. Gure artean zergatik ez?

Emen bukatu nai det nere karta au. Luzeegi atera zait. Bego or eta jakin ezazu ni ez naizela ibilli frankotiratzaile bezala, eta zuk eta guztiok ere ba degula nori zer gaitz-izen ipiñiko burua zorroztan ibiltzea baiño egiteko bearragorik.

Zure itzekin bukatzen det: gaizki esanak barkatu. Eta agur.

Lino Akesolo

## GARBIZALETASUNA

### HISTORI-APUR

Euskera-garbi-kontuan gure gogoanean, bi egoera ta iritziera, oso ezberdiñak, ikusi izan ditugu eta ikusten ere ditugu.

Gure gazte-denboran, *Lexikoaren garbitasunari* (itz bakoitzaren garbitasunari) garrantzi aundia aitortzen zitzaion. (Aita Larramendi'rengandik gauzak ola zetozen).

Eta batzuren batzuek, gai ontan, *Lexikoaren garbitasunari* bakarrik begiratzten zioten. Sintaxis'en garbitasunari (izkuntzaren joskera jatorrari) ez ainbeste.

Beste batzuek. Sintaxisa "izkuntzaren anima" dala esaten genduan: *Lexikoa*, gorputza; *Sintaxisa*, "anima"; eta *Lexikoari* baño geiago begiratu bear diogula. Tolosa'ko Artxipreste famatu Orkaiztegi'ren *slogan* ederra da esaera ori (A. Larramendi andoaindarra eta Orkaiztegi, andoaindarra).

\* \* \*

Euskaltzaleen artean gauza oso jakiña da, izkuntzaren Sintaxis-kontu ori asko astindu eta argitu zuana, gure Altube aundia izan zala. Berak idatzi bait zuan "Erderismos" deritzan, gure Sintaxisari buruz iñoiz iñork idatzi duan idaztirik sakonena eta argiena.

Egia da, Sintaxis'az beste, itzen euskal-jatorri garbiari ainbeste jaramonik egiten etziona; gerra ezker batez ere azaldu bait zuan argiago bere iritzia gai ontan: erdal-jatorrizko zenbait itz (*zeru*, *adibidez*, eta *mundu*, eta Eliza, eta *pekatu*, eta *grazia*, eta *barkatu* etab.). Euskera idatzian ere on-artu bear genituzkeala, alegia...

Eta orain, nik ez dakit orregatik ala bestela, gerra ezker, Lexikoaren garbitasunean batik-bat, gauzak asko ta asko aldatuak "bilakatu" dira gure artean. Lexikoan...

Bañan, ez lexikoan bakarrik; baita Sintaxis'ean ere asi zitzaizkigun batzuren batzuek, "Altube'ren legeak" kritikatzan... Egia esan, arri-ta-zur egiñik gelditu giñan bein, orain urte batzuek, Euskaltzain bati entzun genionean "Altube'ren legeak estuegiak dirala..."

Egia da, orla mintzatzen ziranak ez dirala "jaiotzez euskaldun"; ez dutela nunbait, jaiotzez euskaldun diranai Orixe'k aitortzen dien arako "euskalbelarria" dalakoa, gauza auetarako. Gu beintzat arri-tazur egiñik gelditu giñan alako esaerak entzutean. Guk beti ala uste izan bait degu, izkuntzak duan gauzarik bearrena ta ederrena, bere Sintaxisa dala; Lexikoa baño areago. Lexikoan barbarismoren batzuek barkakizun dirala, Sintaxis jatorra ondo zaitu ezker...

#### KRITIKA-APUR

Leen, bear bada, lexiko-garbigontuan beti ere indarka bezela ari izaten giñan idaztean, itz garbiak buru-belarri inun arkituko indarka. Ariera ori, bear bada, ariera neketsua zan, benetan ezin jarraituzko bide neketsua; bañan, ura zerbait bazan-ta, gaur bide artatik iges-egiteko erortzen ari geran erreka-zuloa, lotsagarria da benetan.

Nekea txarra da idaztean; bañan neke jatorra ez baño alperreteria ere izan bait liteke tarte ortan. Alperreteria, utzikeria, saiaturai-eza.

Gauza ona da errex idaztea eta irakurtzean errextasun ori nabaitzea. Bañan beti ere gogoan euki bear da, izkuntza guztietan izan dala beti, izkuntzaren gaitz txar bat bezela, *barbarismoa* gogor sa-

latzen duan kapitulo bat, Altube'n bere alorrean *erderismo* esango zukeana, bai Sintaxisan, bai Lexikoan. *Barbarismoa*...

\* \* \*

Utzikeri orren agergerri, ikusi ditzagun, oraindik "opil erreberri" dan liburu batean arkitzen ditugun troxu arrunt batzuek (bai bait dirudi, euskaltzale jator guztien bizkarretik far-egiteko idatziak).

Agergarri bat: "H-ren orriak zabaltzerakoan, *txokantea* egiten da, ez *punturik*, ez *komarik*, ez *minuskularik*, ez *maiuskularik*, ez izateak lerroei ematen dien *uniformetasuna*. Baina *puntuazioarena* edo *narrazioak puntuaziorik* ez izatea, ba da *sinbolismo* bat baino zerbait geiago Sollers'ek egindako *esperientzia narratiboak*, beste *puntuazio* bat (*signoz markatu* ezin dena) *esijitzen zion*". (...Bost errenkadatan, amasei barbarismo).

Beste agergerri bat: "Haien *diskurso filosofikoak*, *puntu* eta *komak* eskatzen zituen bezela, filosofia definitu bat barren bizitza bat zuteken *personaia* mamitu batzuen beharrean aurkitzen zen haien nobelagintzaren *desarrolloa*. Azken *finean*, "*historia*" bat asmatu beharrean ikusten ziren, aipatu den *diborzioa espresatu* ahal izateko". (...Troxu ontan gaia bera illuna ta zalla dan arren, tartean sartu zaizkion amar barbarismoak ez diote egiazki argitasun ta errextasun aundirik sortu...).

Eta neurri ortan jarraitzen bait du, ondikotz! gure idazleak, arrotz-itzak itzetik-ortzera darizkiola: "giza-kondizioaren literatura", "errebeldia", "abentura", "sentidu", "indeszifrablea" "deszifratzeko", "frakasu" "desbribitzen", "deskribitu ezina den deskripzioa deskribitze nahiaren informea"...

Eta ez noa jarraitzera.

Agergarri oietatik neurri bait diteke, norañoko erreka-zulora erori giñeanean, bide ortatik jarraituaz.

*Lekuona zaarrak*



## Euskera Araban (1975'gn urtean)

Euskal lantxo bat eskatu didate. Araba'ko euskerari buruz zerbait eta emen natorkizute Araba'ko euskeraren berri emotera. Euskera Araban atzeruntzka asi zala urte asko dira. Gaur Gipuzkoa-ko eta Bizkaiko mendi bazterretaraño iges eginda daukagu. Baña, Jainkoari eskerrak, oraindik ere Araba'ko lurraldeetan egiten da. Adibidez Aramaixon, auzo edo barriotan, dana euskeraz egiten da oraindik, Ibarra (an kalea esaten diogu) erderaz ere egiten bada, batean kanpotarrak etorri diralako, besteetan emakume eta neska erdera atseginago zaielako. Legutiano edo Billarrearen ere eundik gora dira euskera dakitenak eta egin be egiten dabe. Zigoitia aldean zaar eta artzai batzuek be egiten dabe oraindik. Gero Amurrio aldera Baranbio eta inguruetan, emen be zaarrak. Gero euskaldun geixen Gazteiz'en bizi dire. Emen Euskal-etxe aundi bat bear lukete batasun apur bat izateko, bañan gaurko egoera ontan zailla iruditzen zait ori lortzea. Dana dala, dakigunez, amaika edo amabi milla euskaldun an emen sakabanatuta ba dagoz gaur Gazteiz'en.

### EUSKERAREN ALDE GAUR ZER EGITEN?

Zerbait egiten da. Ez, egin bear litzaken laurdenik ere, agintariengandik asita. Auek euskal ezgueran sartzea ez litzake izango noski lan makala eta motela. Baña gauzak astia edo denporia bear dabe. Gaur Aldundi edo Diputazioak "Servicio del Vasuence" deritzan idazkola edo oficina bat jarria dauka. Kili-kili kuadernoak zabaldu eta banatzeko eta abar. Dirutan aurtengo kontuetarako eta "Servicio del Vasuence" orretarako *iru milloeta erdi* izendatu ditu. Ezer gitxi derizkiogu ia bi mille milloien presupuestu baterako. Diputazioak estaduari bakarrik 883 milloi ta erdi emon bear dizkio, Zerga-ituna edo "kontzertogatik". Bada dirutza ederra. Gaur euskeraren laguntzarako gitxienez amar edo amabost bat milloie bear lirake zerbait egiteko.

### IKASTOLAK

Emen dago dudarik gabe gure itxaropena. Aita Olabide'ren Ikastolak bukatuak dire. Bertan 750 edo 800 ikasle badabiltza.

Bost ikastaro edo kurtso ematen dituzte. Asko edo geienak erdal-dunen seme alabak dire eta etxeetan euskal giroa palta, Jarraipenik balukete gerora, eurengeandik asko espero leike. Aramaixon (Ibarra) bi ikastola dagoz txikientzako. Bietan 50'en bat umetxo. Bata Diputazioaren babespean eta gurasoen babespean bestea. Laudion (Llodion) be ikastola barriak egiñak dituzte. Manuel Iradier Bazkunak ere eukal ikastaro bat irikia du urtero lez. Auek danak zerbait izan arren, erdel giroa aundia eta barruko euskal giroa irmoa ez bada, azkenean protxu aundirik ezin atera. Baño beti zerbait ere geratuko da.

### BI MILLA FAMILI EUSKALDUN GAZTEIZ'EN

Bai, ba omen dira Gazteiz'en gutxi gora bera bi milla famili euskaldun. Berri onek nola ez pozez bete euskaltzaleok? Geienak Bizkaitik eta Gipuzkoatik etorriak eta baita Naparroatik ere. Oien artean badira noski euskal kontzientzia bizirik dutenak eta euskal kulturaren alde zintzo diardutenak. Baño egia esan, zazpi bider geiago izango ditugu lotan edo erdi lotan dagozenak. Oiek danak pulamentuz euskeraz egingo balebe bai etxean eta bai kalean, ze euskal giroa eta ze indarra sortuko litzaken. Orain be gero eta euskaldun geixago datoz Gazteiz eta Araba aldera Gipuzkoa, Bizkai eta Naparroatik, lantegi artu emanak eta salerosketak dirala, edo opor egunak igarotzera edo egun pasa dala.

### KARDABERAZ BAZKUNA

Arabian sortu zala, orain bi urte dira eta zerbait egiten dogu. Illean bein batzeko asmoak ditugu. Len S. Bizente'ko ardetxean, il berri zaigun Narbaiza, gure lagunaren etxean eta orain beste etxe batean egiten doguz gure batzarrak. Asko ez gara, baño bai euskera asko maite dogunak. Eta geure arteko lanak aztertu eta ikusten doguz. Eta bukatzeko auek dira Araba'ko euskeraren barriak gaurko egunetan. Gorbeia'ko gurutzeari egindako kanta, "Aurrera mutilak" esanaz bukatzen da. Damaigun da euskera aurrera. Mereziduan mallaraño.

*Txindoki. Aramaxotik*

## San Inazio Iruña'tik Azpeitia'ra

Nundik zear eraman zuten? Bai bait dakigu angarilletan eraman zutela, Nundik barrena, ordea?

\* \* \*

San Inazio'ren ibilliak, beti ere eman dute zerbait pentsakizun. Paris'etik etorri zan bein. Zein bidetatik? Ez bait det uste, gauza au oraindik garbi-garbi erabakia dagonik, batez ere Irun'dik Iturriotz'erañoko txangoari dakokiona.

Gauza bera gertatzen zan, orain berrogei-bat urte, Iruña'tik Loyola'rako bidearekin ere. Pentsakizun zan gauza; eta Aita Lizarralde frantziskotarrak zerbait sakondu nai izan zuan gai ori. Aita San Inazio'ren gaiak oso gogoz sakontzen zituan, Santu azpeitiarrak Arantzazu'ri zion atxikitasunagatik nunbait. Eta etzan ibilli oi oso oker bere pentsakizunetan...

\* \* \*

Iruña'ko arazo ontan, gauza bat zeukan oso gogoan gure Aita frantziskotarrak. Loyola'ko Iñigo, bere berna-ezur puskatuarekin, arrisku audian arkitzen zala Iruña'n ordu aietan. Etsai-artean, alegia. Iruña ta Iruña-inguruak une artan nafarrez eta prantsez bezalaberik zeuden. Eta burruka artan Loyola'ko semeak gaztelautarren alde jokatu bait zuan.

Gauzak ola izanik, gure Aita Lizarralde'k pentsatzen zuan, pentsatu, zaurituaren eramalleak, biderik laburrenetik joan naiko zutela gaztelar-jende artera, Goñi aldera, alegia; andik bait zuten gaztelautarren lurrera (Araba'ra) biderik garbiena: Goñi-aldetik, Ollo-aldetik... Andi-mendi'ra, Urbasa'ra...

Eta ola pentsatu zuan bere pentsakizuna gure Aita Lizarralde'k: "San Ignazio, Iruña'tik Ollo ta Goñi'n barrena, lenbaitlen Andimendi'ra eramango zuten; eta gero, Urbasa'n barrena Araya'ra, eta Araya'tik —bear bada, Gebara'n apur bat ats-egin ondoren (Gebara'n loyolarrak izeba zaar bat bait zuten)— gero Otzaeta'n barrena, Araotz'en barrena, Oñati'ra eta aizkenik Oñati'tik Azpeitia'ra...

Etzegon gaizki pentsatua.

\* \* \*

Bañan gertatu, gauza etzan ola gertatu. Gure mutil eritua, beste bide batez eraman zuten. Itxuraz lekurik arraixkutsuenetatik. Ez Urbasa'n zear, Aralar'en zear baizik: Irurtzun'en eta Madoz'en barrena... Nafarrik geiena izango zan lekuetatik...

Dokumentalki dakigu.  
Ikustagun nola.

\* \* \*

Nafar jatorrak, prantzes-indarrez orniturik, Garazi'n zear Iruña askatzera zetozela zabaldu zanean, nafarrik geienak etorkiñen alde jarri ziran. Aien artean beste asko ta asko bezela, Iruña-inguruko gazte bat, Sebastian Zubasti zeritzana.

Iruña guztia irakiten zegon gaztelautarren kontra.

Bañan nafarrek galduan atera ziran. Eta, olakoetan gertatzen dana, *auditorias de guerra* diralakoak bereala asi ziran bakoitzaren garbitasunak egiten. Eta asko ta asko gogor zatituak izan bide ziran.

Gure Zubasti ere estu zan... Bañan bere estutasunean ba zuan ark, trantze artan iñor gutxik izan zezakean esan bear bat bere alde.

Gauza zan, gure Loyola'ko semea zauritua erori zanean, eta, lenengo sendabideak egin ondoren, Azpeitia'ra eramateko asmoa artu zanean, Zubasti ura an suertatu zala... eta, ain zuzen, berak bere gain artu zuala, mutil zauritua arraixkurik gabe Gipuzkoa'rako bidean ipintzeko kargoa... Zubasti ura zan, nunbait, alakoa, errukiorra, biozpera gazoentzat; edota beste nolabaiteko adiskidetasunen bat zuan gure Iñigo'rekin... Kontua da, gure Zubasti'n ereti artan bere burua garbitzeko, gertaera ori *auditorian* adierazi zuala: "Egia zala, bai, bera burruka artan gaztelautarren kontra izan zala; bañan, ala ere, berak ba zuala, Enperadore Jaunaren alde egin dako serbitzu berezi-berezi bat: Loloya'ko seme zaurituari berak eman ziola ordu artan bear zuan Babes ta itzala, arraixkurik gabe bere etxeraño iritxi zedin. Berak gidatu zituala zaurituaren angarillariak, bere Zubasti'ko Jauregian barrena, Larraun lurreraño, andik Gipuzkoa'ra kalterik gabe joan zitezten..."

\* \* \*

Sebastian Zubasti'ren aitormenetik dakigu, beraz, Urbasa'n barrena ez baño, Aralar-aldetik izan zala Iñigo erituaren etxerako bidea.

Gauza au, donostiar Aita Rekondo batek aztarnatu bait du, oraindik urte asko ez dala, Artxiboetan lan-egíñez, Nafarroa'ko gerate-kontuak dakarzkiten paper zaarretan...

Orain ba dakigu, beraz, ibillera ura etzala izan Urbasa-aldetik, Aralar-aldetik baizik: Zubasti'tik, Atez'ko atakan zear, Irurtzun'en barrena, Madoz'en gora, Larraun'en zear...

Orrela ateratzen bait dira, gañera, egi-itxurazkoak, Nafarroa-ko, eta Gipuzko-erdi-inguruko zenbait lekutan esaten diran kontuak: Betelu'n esaten dana, adibidez, Betelu'ko etxe batean lo-egin zuala gure mutil zaurituak; eta Gipuzkoa'ko Alzaga'n eta Itxasondo'n esaten dana, Alzaga'ko Bostaitzeta'n igaro zala, alegia, eta Itxasondo'ko Itxasaga baserian gauren bat egin zuala... Eta, arritze-koa: Loyola'n bertan, bertako sukaldariak, beren aurrekoengan-dik jasota, esan oi dutena: denbora batean, Nafarroa'tik Loyola'ra mandotan ekartzen zan ardo nafarra, gure Iñigo zaurituak egin zuan bide beretik etortzen zala Loyola'ko upategietara: Larraun-bidetik, alegia.

#### *Lekuona zaarrak*

## **Etorkizunari begira**

Ez neureari. Ez det-ba... Euskerearenari. Ainbeste maite det..! Udako oporrak poztuta, ara gure ikastoletako umeak, nai aña jolas egiñaz zoriontsu...

Batzuk, euren erritik irten bearrrik gabe, bertan, itxaso zabal urdiñak bere kresalaz osasuna sendotzen dielako; besteak, zugasti tontorrean, etxeko atarian jolastuaz, aize garbi ongilleak masaillak gorrituta, birikak garbitzen zaizkiela, zein-baiño-zeinka dabilzela anak arindu zaizkielako, aske, alai... ala edo onela, an edo emen; opor zoragarriak, ikasle txiki edo aundi, ikasi bearraren neke gabe pozetan.

Euren andereño irakasleak diotenez ordea, udazkenean, ikastaro berrian sartzen diranean, zerbait motelduta asitzen dira euske-reakiko; ta, galdua jasotzen alegindu bearrean. Onela urte baten eta bestean. Errudun? etxeko giroa geienetan.

Eta, ikastola utzita, bertako ikasteak amaituak diranean, Instituto'a edo beste Ikastetxeren batera jua bearra danean... nola gel-ditu ez ordutik aurrera, euskerearen etorkizunari begira?...

Ene etxekoandre: zu, zintzoenetakoa zera. Sendia jator azitzen ari zera, senarra oso-osoan lagun dezula, ta zu bere lagun zerala. Biok bat, ontan, beste bear guzietan bezela. Zure etxeko giroa ikas-tolearen jarraipena da. Alperrik erderazko ikasteak egin bearko zure seme-alabak; euren biotzetan, euren oituretan, euren biotzean aitaren eta amaren izkuntza maitea biziko da... Baiñan nik bezin ondo edo obeto dakizu zer gertatzen dan gaur, etxekoandre artean, ikastolara euren umeak eramaten dituzten etxekoandre-arte. Gu-txi batzuk zerate, euskeltzale geranon pozgarri. Beste batzuk, euskaldunak izanda ere, euskeltzale geranon tamalgarri. Eta, auetakoak askotxo izan!...

Gure zoritxarrerako, euskerearen kalte aundirako, onelako etxekoandre asko ta asko degu gure artean. Etxekoandratzan jator-jatorrak ditugu, sendiaren eta senarraren maitaleak: baiña, eura-igerri gabe, "prensa femenina" deritzan irakurgaitara oso-osoan lotuak bizi dira, eta, azitzen ari diran sendian, or ikasten ta ikusten dutena biotzean gordetzen dute.

Onelako edo alako "artista"-en bizikera ta gora-berak, oiek bai. Onelako "izar"-ek senar bat artu ta bestea laga duana; arako senar-

emazte ospetsuk, euren maitasuna ain esan-gai erabilli dutenak, iñor ez bezelako maitale izan diranak, banandu dirala. Jaialdi aundietako arrokeri nabarmenak. Emakumea tresnatzat artuta, be-  
ra nabarmendu, ta salgai dituzten gauz askoren erakustalle ipintzen dutenak. Ez al da au, diru pixka batengatik, emakumeari bere bu-  
rua erakus'aztea? "publicidad" deritzan salbidedean, gezurra egi-  
ztat azaltzen jartzea?

Irakurgai auetan, ez da onbiderik erakusten; ez da kristautau-  
sunean joan bear geran biderik erakusten; bai ordea lasaitasunari  
ontzat eskeñiak egiten. Au da ba, batetik, "prensa femenina" orretan  
ikasten dana; ta, bestetik, "publicidad" deritzan iragarki oiek  
dirala-ta, zenbat diru, zuretzat alper dana ez dezu aldizkari oietan  
ematen? Ia-ia, oien orrietan, erdia-inguru salgai dauden gauzen  
iragarkiak (anunzioak) zeuk ordaintzen dituzu. Baiña, euskera-al-  
dez emateari... "alperrik ematea" esaten dezu, etxeoandre, "pren-  
sa femenina" zale zeran orrek.

Ez da naikoa, umea ikastolara eramatea. Au oso ondo egiten  
dezun gauza da. Baiña, ikastola utzi, ta beste ikasteak egitera bear-  
tua dagonean, arren, etxean, euskerazko irakurgaiak arki ditzala;  
euskera entzun dezala, ta, batezere, Elizara bidea ez dezala aiztu.  
Geureari eutsi bearrean gera, onbideari beintzat. Euskerearen  
etorkizuna, gizonagan beste (gutxiago ez) emakumeagan dago. Ema-  
kumea *Sendiaren Euskaia da*; ta ortan bear degu alegindu, sendia  
gaizkatzen. Au da gure bearkun garrantzi geien duana, eta Jaun-  
goikoaren aurrean geien beartzen gaituna.

*Tene Mujika*



## KARDABERAZ BAZKUNA

1924'an sortua, Gazteizko Seminarioan,  
Euskeraren alde.

1936'an galdua. 1970'an berritua.

Zertarako? a) Euskera jator batean

b) Kristau-pentsakera barruan  
(ezi zabala) lan egiteko.

*Bazkideak* (gizon ala emakume) milla pta.  
ordaindiko dute sarrerako ta beste mi-  
lla urtero. Diru oiekin ateratzen da  
KARDABERAZ BILDUMA, bazki-  
deentzako ezean.

*Arpidedunak* (bazkide nai ez dutenak) li-  
buruak artzera beartzen dituzte beuren  
buruak.

Bazkide naiz arpidedum egiteko nora jo?  
Leku auetara:

Kardaberaz Bazkuna:

Tolosa'ra: Juan José Garmendia Arcelus  
Técnicas de Difusión.  
San Francisco, 1.  
Apdo. 83.

